



**Ipar
Amerikako
indiarren
ahotsa
euskaraz**

**Beasaindar
dantzarien
alardea**


**Goierriko
triatloi taldea**

Aizkorri

**Landarlan:
parke naturala
noiz?**

**Maiatzak 9:
II. Aizkorriko
bira**

**Maiatzak 23:
Zegama-Aizkorri
mendi maratoia**



K

I

M

E

T

Z

I L E A P A I N D E G I A

943 88 14 42 MENDEURREN ETORBIDEA,2 20200 BEASAIN





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



FREELANDER BERRIA

NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefona: 943 33 10 06

Goierriako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefona: 943 88 17 00



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aitziber Murua, Aimar Maiz, Ion Muñoa, Iñaki Ugalde, Igor Sarriegi eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.100 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Beasaindar dantzarien alardea, maiatzaren 16an

Beasaingo Aurtzaka dantza taldea 25. urteurreneko ospakizunetan dabil 2004. urte honetan. Maiatza ekitaldiz gainezka izango dute. Loinatz jaien aurretik, bi ekitaldi nagusi izango dituzte: maiatzaren 7tik 16ra, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' argazki erakusketa eta maiatzaren 16an, Beasaindar dantzarien alardea. Beasainen dantzari izan diren eta diren guztien jaia izan nahi du Aurtzakak. Dantza, bazkaria eta erromeria izango dira maiatzaren 16an. Alarde egunerako presatatu duten egitaraua duzue jarraian:

Goizeko 11etan Igartza-Dolarea inguruan elkartuko dira dantzari guztiak, bertan hamaiketako egiteko. Plazarainoko desfilean, musika eta dantza izango dira nagusi. Loinazko San Martin plazan, alardea egingo dute. Ondoren, eguerdiko 2,30etan, plaza azpiko arkupeetan bazkaria izango da. Txartelak Loinatz tabernan daude bertara joan nahi dutenentzako.

Helduek 20 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 15 euro. Erromeriarekin amaituko dute eguna.

Alardea prestatzen aspalditxotik hasiak dira. Beasaindar dantzariak dei egin die Aurtzakak. Argazkian, apirilaren 24an egin zen entseguko une bat ikus daiteke. Beste entsegu orokor bat ere egingo dute, bihar, maiatzak 8, arratsaldeko 4etan, Antzizar Kiroldegian.

Argazki erakusketa

Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan, maiatzaren 7tik 16ra, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa ikusgai izango da. Garai ezberdinetako 100 bat argazki bildu dituzte Aurtzakoek. Ekainetik aurrera, Beasaingo dantzaren historia erakusten duen argazki erakusketa, Igartza jauregian egongo da ikusgai, azarora arte.

Goierritarra Goierrikan jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:


Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Jon Gorrotxategi beasaindarra kalean, 2 urte kartzelan egin ondoren *Herriko Tabernen auziagatik atxilotu zuten*

Jon Gorrotxategi beasaindarra 2002ko apirilaren 29an atxilotu zuten, garai artean Batasunako Mahai Nazionaleko kidea. zela. Herriko Tabernen auziagatik. Bi urtean Soto del Realgo kartzelan egon da. Bihar, maiatzaren 8an, ongi-etorria egingo diote Beasainen, arratsaldeko 7etan, herriko plazan.

Herriko Tabernek ETArekin finantzarekin zerikusia leporatuta egin zen zuen aurkako operazioa. 11 lagun atxilotu zituzten. Zein irakurketa egiten duzu?

Gure aurkako jarraipena ez zen arrazoi judizial edo juridikoengatik izan, arrazoi politikoengandik baizik. Ezker Abertzalearen aurka azken urte hauetan, eta gu atxilotu baino lehenagotik zabaldua zeuden bi bideen nolabaiteko osagarritasuna izan zen. Bide bat zen, judiziala eta penala zen, Ezker Abertzalearen egituraren aurka; eta beste bidea legislatiboa, Batasunaren ilegalizazioa ekarri zuen legea. Ezker Abertzalearen gorputz politikoa jokoz kanpo jartzeko saio horren barruan kokatu behar da gure atxilotaketa. Herriko Tabernen eta Batasunaren sumarioa elkarlotzen dira. Garbi dago, arrazoi politikoak zeudela, Gobernuak eta berarekin batera gaur egun Gobernuan dagoen PSOEek ere erabaki hori hartu zuten, eta Ezker Abertzalea jokoz kanpo uztea izan da Euskal Herriaren burujabe-



Jon Gorrotxategi kartzelan egon den bi urtean, ama eta aita hil zaitzkie, denbora gutxian. Amaren hiletetara etortzerik ez zuen izan, aitarenera bai. "Ia besarkadarik eman gabe alde egin behar izanak, sentipen asko sortzen ditu".

Pedagogia ikasketak egiten hasi da kartzelan, ahal zuen neurrian. "EHUn hasi nintzen, baina legea aldatu zuten eta Uneden hasi nintzen. Ekainean egin beharreko azterketen gai zerrenda orain hilabete jaso nuen. Honetan ere, trabak gora eta behera jartzen dituzte".

tzaren kontra egiteko modurik eraginkorrenetarikoa bat. Herriko Tabernen kontrako sumarioa hori kokatu behar da. Sumario horretan dena aitzakiak izan dira eta ikusi besterik ez dago sumario horrek zein bilakaera izan duen. Orain hilabete eta erdi esan ziguten atxilotu gintuztenetik hona sumarioari ez diotela orri bakar bat gehitu, dena esanda dago. Herriko Tabernen kontrako neurri judizialak, oraindik ere, ia indarrean jarri gabe daude. Aurtengo martxoan eskatu dituzte lehenengo kontuak.

Bi urte hauek nola bizi izan duzu egoera politikoa. Batasunaren ilegalizazioa ere kartzelan bizi izan duzu.

Kartzelan askoz ere estuago hartzen dira gauzak, ezer ezin izanaren inpotentziarekin. Pertsonalki hori horrela izan

bada ere, politikoki ikusten da, geuk garai hartan egiten genuen azterketa horren konfirmazioa izan dela. Urratsez urrats ikusten zen ondorio batzuk izango zituela, ilegalizazioa, hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez izana... aurreikusi zitekeen zerbait izan da. Azkenean, helburua, Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko erreferenterik ez egotea zen eta zentzu horretan autodeterminazioaren aldeko sugar hori itzaltzea.

Bi urteren ondoren libre utzi zaituzte fidantza ordaindu ondoren. Gobernu aldaketak eduki al du eraginik?

Gobernu aldaketa baino gehiago beste arrazoi asko egon daitezke. Politikoa, juridikoa... Gure prozesamenduan bi urte pasatu ditugu behin-behineko kartzelan eta bi urte pasatuta errebisatu

"Gobernuaren aldaketa egon delako ezin da inolako itxaropenik eduki"

egiten da. Bi aukera daude, lau urtera luzatzea edo bermearekin kalean uztea. Bitartean horretan juridikoki, gure kontrako akusazio berriak ez da aurkeztu. Nahiko kasu berezia dela esan digute. Jende bat kartzelan dago eta bi urte pasatu ondoren oraindik ez du adierazi inork kartzelan egoteko arrazoiak zeintzuk diren. Atxilotaketa autotik aparte beste ez dago beste akusaziorik.

Politikoki, ez dut uste PSOEren gobernu aldaketak horretan zerikusirik izan duenik. Egia esan, gobernu aldaketa ezusteko moduan egin da, Martxoaren 11ko gertakariak eragin zuzena dute aldaketa horrekin, eta bai PSOE eta PP ezustean harrapatu dituen emaitzak izan dira. Ustekabe horretan espektazioa sortu da kalean. Espektatiba horien artean ikusten da, zenbait alderdik, Euskal Herrian beste zenbait urtetan porrot egin duten entsaio batzuk, beregiteko gogoia edo asmoa dagoela, batez ere EAJren aldetik. Ez da ahaztu behar, PSOEek 13-14 urte eman dituela Gobernuan eta Euskal Herriarentzako garairik beltzenetakoak bertan eman direla: dispartzioaren garai bortitza, Gal-en sorrera... Euskal Herriaren aldetik, Gobernuaren aldaketa egon delako ezin da inolako itxaropenik eduki.

Europako hauteskundeetarako 'Herriarren zerrenda' osatze sinadura biltzea

Datorren ekainaren 13ko Europako hauteskundeetara begira, "Euskal Herriko herriar abertzale eta ezker-tarrak" osatutako plataforma osatzeko, sinadura biltzea egiten ari da egunotan herrietako udaletxeetan eta Beasain eta Ordiziako Notaritzetan. Maiatzaren 8an da sinadura emateko azken eguna. Beasainen kasuan esaterako, goizeko 10etatik 2etara bitartean eman daiteke sinadura, bai udaletxean eta bai Notaritzan.

'Herriarren zerrenda'-rekin, "Bestelako Europa bat posible dela pentsatzen dugun Euskal Herriko herriar abertzale eta ezker-tarrak guztion lana elkartuz eta Europar Hauteskunde hauetan aukera nazionala indartzeko asmoz, Euskal Herri osoan 'Herriarren Zerrenda' izena izango duen abertzale eta ezker-tarrak guztien hautagaitza elektorala osatzea", da asmoa. Zerrenda zilegi izateko, 40.000 sinadura bildu behar dira Euskal Herri mailan. Goierrin, mila inguru.

Iraunkortasunaren inguruko galdeketa goierritarren artean

Agenda 21aren barruan, Goierriko Agenda 21 taldeak aginduta, Datakey enpresak, iraunkortasunari buruzko galdeketa prestatu du goierritarrei zuzendua. 400 goierritar hartuko dituzte. Herri txikienetan adibidez, 10 pertsonako lagina mantenduko da. Apirilaren 29an ziren galdeketa hastekoak.

'Arnasberritzeko' Atzegizale bila

Atzegi, Gipuzkoan adimen-urritasuna duten pertsonen familiek 1960an sortu eta eraturiko elkarte da. Urtero Atzegizale egiteko eta adimen urriko pertsonen inguruko sentsibilazazioa areagotzeko, kanpaina burutzen da apirilaren amaieran. Aurtengoan, 'Arnasberritzeko' izan da kanpainaren lema. Atzegitik, Atzegizale izatea zer den adierazi digute: "Orain Atzegi zu ere Atzegizale izatea eskatu nahi dizu, une jakin batean zailtasunen bat duten horiei laguntza emateko, batez ere norbaitek baztertzan dituenean, gaizki begiratzen dituenean, pazientzia galdu edo zerbait esplikatzen ahaleginik ere egiten ez duenean". Atzegizalea izan nahi duenak Donostiako Okendo, 6 behean edo 943423942 telefono zenbakira jo besterik ez du.



Iazko irabazleak.

III. Ordiziako komiki lehiaketa

Euskara Biziberritzeko Planaren barruan, III. Komiki lehiaketa antolatu du Ordiziako Euskararen Aholku Batzordeak, gazteen artean euskarazko komikigintza sustatu eta bultzatzeko. Komikieta-ko testuak euskaraz idatzi beharko dira, eta epaimahaikideek bereziki begiratuko diote testuaren zuzentasun eta egokitasunari.

Ordiziako nahiz Ordiziatik kanpoko edozein ikaslek har dezake parte lehiaketa honetan. Lanak epaitzeko orduan bi maila bereiziko dira: 12-14 urteko bitartekoak eta 15-16 urte bitartekoak. Maila edozein delarik ere, lanek orrialde bat izango dute gutxienez, eta lau gehienez.

Gaiari dagokionez, edozein izan liteke. Eta bertan erabiltzen diren pertsonaiek orijinalak beharko dute izan. Lanak burutzeko erabili beharreko teknika ere norberak aukeratu ahal izango du.

Komikiren bat aurkeztu nahi duenak kontuan hartu beharko dituen beste hainbat baldintza: lanak koloreetan nahiz zuri-beltzean aurkez daitezke, bereizita epaituko dira; aurkezten den lanaren jatorrizko alea baino ez da onartuko DIN A4 neurrian; lanari erantsitako kartazalean, lanaren izenburua eta egilearen goitizena jarriko dira bistan, eta barruan emango dira egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia).

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 10ean irekiko da eta maiatzaren 21ean itxiko. Ordiziako Udaletxeko Euskara-Zerbitzura behar dira lanak (Kale Nagusia, 24).

Lau saritu eta Asisko Urmeneta

A mailan, Ordiziako gazteek egindako lanik onenari 80 euroko balea emango zaio Donostiako Bilintx Megadendan gastatzeko, eta beste horrenbeste Ordiziatik kanpoko lanik onenaren egileari ere. B mailan, 110 euro bi sari banatuko dira, Ordiziako nahiz Ordiziako kanpoko lanik onenen artean, horiek ere Bilintxen gastatzeko.

Lanak Euskararen Aholku Batzordeko bi kidek, Jakintza eta Oianguren ikastetxeetako plastikako irakasle banak eta Asisko Urmeneta komikigile iruindarrak epaituko dituzte. Sari banaketa ekainaren 10ean egingo da, arratsaldeko 7etan, Barrena Kultur etxean. Lehiaketa aurkeztutako lanen eta sarituak izan direnen balorazioa egingo du Urmenetak, eta bide batez, saioa eskainiko du. Gainera, ekainaren 14tik 30era bitartean, lehiaketara aurkeztutako lan guztiak biltzen dituen erakusketa izango da Barrenan bertan.

Hitaroren eskutik, dohainik Euskal kantuen ikastaroa Ordizian

'Kantuz' ikastaroa hasi zen maiatzaren 5ean Ordizian, Hitzaro Euskara Elkartek antolatuta. Itziar Zamora lekeitiarra da irakaslea. Musika pedagogian murgilduta dago azken urteotan Zamora, eta berak gidatzen ditu, besteak beste, Donostiako eta Arrasateko 'Kantuz' ikastaroak. "Epe-rra, Salamancara, Isil-isi-lik, Baldorba, Maria Solt... ezagunak zaizkigu gehienoi, baina horien leloak dakizkigu soilik. Ikastaroan, lehenengo kantuak irakurriko ditugu, bertan esaten dena ulertzen saiatuko gara eta, behin kantua ondo mamitu ondoren, abesten hasiko gara", dio Itziar Zamorak.

'Kantuz' ikastaroa maiatzaren 5ean hasi bazen ere, oraindik izango da bertan parte hartzeko. Izan ere, hamabostean behin, sei asteazkenetan, Barrenan, arratsaldeko 7,30etan, bilduko baitira kantuaren bueltan. Ikastaroa dohainik izango da. Izena emateko, Hitzarora deitu besterik ez dago (943 16 23 66).

Kantu Jira eta Kantu Afaria

'Kantuz' ikastaroa, Hitzarokoek 'Lagunartean Kantari' izendatu duten ekimenaren lehenengo ekitaldia litzateke. Izan ere, uztailean 'Kantuz' ikastaroan egindako lana jendeak eza-

gutu dezan, eta herria girotzeko asmoz, 'Kantu Jira' izeneko antolatze asmoa ere badu Hitzarok. Ikastaroan parte hartu dutenak herriko kaleetan zehar aterako lirateko betiko euskal kantuak abesten.

Horrezaz gain, Hitzarok irailako Euskal Festetan antolatu ohi duen Kantu Afarira begira, ikastaroa baliagarria eta emankorra gerta daitekeela uste dute Euskara Elkartekoek.

'Lagunartean Kantari' ekimenarekin, "lagun giroan euskal kantu tradizionalak ikastea eta herri bizia- go eta euskaldunagoa sortzen laguntzea" ditu helburu Hitzarok.

Gazte Asanbladen arteko topaketa Idiazabalen

Idiazabalgo Gazte Asanbladak 5. urteurrena ospatuko du egunotan. Hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte. Guztien berri, Idiazabalgo kronikan duzue.

Ondorengo lerrootan, maiatzaren 8an, arratsaldeko 5etan izango den ekimen bat azpimarratuko dugu: Gazte Asanbladen arteko topaketa. Ordiziako, Urretxu-Zumarragako, Zaldibiako, Santutxuko, Errekaldeko, Arrasateko, Sakanako, Donostiako zenbait auzoetako, Gasteizko eta Villabonako Gazte Asanbladetak kideak Idiazabalen bilduko dira, eta besteak beste, Gazte Asanbladen funtzionamenduari eta egoerari buruz hitz egingo dute.

'Bi': Elurretan taldearen

lehenengo diskoa

Ordiziako 'Elurretan' musika taldeak Moonpalace Records zigiluarekin 'Bi' diskoa kaleratu berria du. Bost kanta jasotzen dira bertan. Kanten artean dago 'Sei segundu' eta bere bideoklipa. Bideo klipa Goierri Telebistan eta Euskal Telebistan ikusteko aukera izango da. Elurretan taldearen web gunean ere bai. Web gune honetan kantak ere jaitsi daitezke.

Goierriko Goiztiri eta Zumarragako Bisasti AEK euskaltegiek antolatuta XIII. Txiste eta pasadizo idatzien lehiaketa

Goierriko Goiztiri eta Zumarragako Bisasti AEK euskaltegiek urtero antolatzen duten txiste eta pasadizo idatzien lehiaketako oinarriak kaleratu ditu. 16 urtetik gorakoek har dezakete parte lehiaketan. Txiste edota pasadizoak euskaraz (batuaz edo euskalkiaz) idatziak izan behar dute.

Maiatzaren 19a baino lehen bidali behar dira txisteak, Ordiziako 116 postakutxara. Posta elektronikoz ere bidali daitezke, basain@aeonet.net helbidera. Txiste bakoitzean norbere izena, helbidea eta telefono zenbakia jarri behar dira. Ahal bada baita posta elektronikoen helbidea

ere. Sariak 3 txiste edo pasadizo onenentzat bina afari izango dira Zeraingo Ostatuan, Lazkao mendiko Itxurren eta Itsasoko Ostatuan. Aukeraketa Goiztiri eta Bisasti AEK-ko ikasleek egingo dute. Irabazle- en izenak GOIERRITARRA aldizkarian emango dira ezagutzera.

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA



Andoni
Sarriegi
Eskisabel

Orain egun batzuk, Karim Fall senegaldarra agertu zitzaigun ETBn, baina ez lehen bezala Jaiak programaren antzekoren bat euskaraz aurkezteten, bere munduko (herriko eta etxeko) barne-bizitza, beste aurkezle bati kontatzen baizik. Euskal Herrian lanean diharduenean Ordizian bizi den senegaldar euskaldun hori, bere giroan azaldu zitzaigun eta han duen guztia erakutsi zigun: familia, etxea, herria, asmoak, bizimodua, kultura, etab.

Gurasoak, anaia, koinata, ilobak, emaztea eta bera etxe berean, ahuntzekin, etxearen alboko zuhaizpean, ahuntzegian, otordua prestatzen, etab., ikusita, niri behintzat, gure XVIII. eta XIX. mende-ko arbasoen familiak etorri zaizkit gogora eta lursail eta abelburu batzuk gorabehera, ekonomia, bizimolde, kultura eta teknologia aldetik antzik badutela otu zait. Familia ugariak eta anitzak, hiru bat belaunaldiz osatuak, zuzeneko nahiz zeharkako senitatekoak dituztenak, goserik ez an pozik baina asetzeko kezkarik gabe onenean ere, gehien-gehienak maizterrak, uztaroz uztaro etxean jatekoa bilduz, izurrite, gerra, lehorte,

ekaitz eta gainerakoen beldur, ura alboko iturrian, errekan lixiba joz, familieren adar bakoitzak logela bat eta umeentzat besteren bat, etab. Hori ez dugu oso urrutikoa hemen ere eta XX. mende-hasiera arte antz handiko egoeran bizi izan zen.

Bistan da noski guk ordutik hona itxuraz bederen asko aurreratu dugula eta Karim-en lurraldean ez dutela hainbeste aurreraterik izan (ez ahaztu iragandako kolonialismo usiatzailea eta gaur egungo ekonomikoa) eta gure aurrekoak bizi ziren bezalatsu bizi direla eta Karim-ek berak agian, orduko Amerikara joandako familiako laguntzailearen lekua betetzen duela berak Europan eskuratutako diruekin familiari bulkada emanez.

Baina nago, guk gaurko haien gizartearekiko eta duela 200 urte hemen genuenarekiko, arlo askotan aurreratu edo irabazi duguna, agian beste arlo batzuetan atzeratu edota galdu egin dugula.

Familiako 8-10 kide edo gehiago, 3 belaunaldietakoak gutxienez, otorduak beti elkarrekin eginez, sinesmen-maila handiarekin eta zeruari erreguka bizitzeak, badu noski alderik batez beste milioi-laurden bat euro edo gehiagoko etxebizitzetan, asko bakarrik, beste batzuk bikoteka eta geroz eta gutxiago hiruzpalaunaka haurrik ez bada, bakoitzak ia bere otordua etxean zein kanpoan eginez, etengabeko parrandak eginez, mugagabeko bidaiak gauzatuz, lauhileroko oporrak, etab., gure artean gutxi-asko gehienok bizi dugun gure mendealdeko "zibilizazio" honetako bizi-ereduarekin erkatuta. Aurrerapenarekin batera iritsi zaizkigu edota ekarri ditugu: erosotasuna, ongizatea, gauzekiko asetasun-maila handia, etxekoekiko

Karim Fall-en mundua

arreta adina abandonu, zerbitzu-antolamendu pila, betebeharrak diru-truke besterentzea eta antzekoak. Ahazten ari zaizkigu ordea familian elkarrentzat lan egitea, ahaleginak eta baliabideak partekatzea, familiako kideen artean maitasun-sentimendu sakon eta iraunkorrak izatea, etxekotasunaren filosofia praktikatzeko, etxekoekin eta familiakoekin orduak igarotzea eta gisakoak.

Joera moduan, bakar-bizitza antzu, geurekoi, ireki-itxurako itxi, zerbitzuz jositako eta diruz ordaindutakora bidean goazela ikusten dut, eta gainera, heldu samarrok ezagututako aldaketa izugarri horiek, ez dut uste belaunaldi berriek harriduraz hartzen dituztenik, normaltasun hotzez baizik, eta horrek ikara bizia sortzen dit beren etorkizunaren pentsatzen dutan bakoitzean.

Aro guztiak ez dira goranzkoak izaten eta normala litza-teke, aurrerabidean geraldialdi edo motelaldiak izatea, krisiak sortzea. Hemen ohitzen joan garen moduan eta "obligaziozkotzat" hartu ditugun hainbat erosgai erosi beharrek, zer gertatuko litzaieke psikologia aldetik gaurko gazteei (heldu eta zaharroi ere bai agian), beren helduaroan hortzak apur bat estutu beharreko arorik suertatuko balitzaie? Nondik aterako lituzkete pertsona moduan, familia gisa nahiz herri gisa behar izango lituzketen kemena gauza batzuek uzteko, ezinbesteko dena soilik erosteko, gaurko bizi-mailari hein batean uko egiteko, kontuak epe luzera egiteko eta zerbait sufritzeko?

Aurrera begira benetako aurrerapenetan inbertitzen jarraitzekotan, gutxienez ere, gaur egun eskuan dugun onena gehixeago estimatzen eta nola lortua den kontuan hartzen bederen ikasi beharko lukete eta ez pentsatu, dena, aurrekoak egonean egonda eta nahi bezala bizi eta iritsi dela eta hori izateko gainera "eskubidea" dutela inolako "obligaziorik" gabe. Oraingo gazteen belaunaldiek, helduok sortu diegun kontsumo-eredu itu eta mugagabeari apur bat bederen uko egin beharko liokete, elkartasun gehiagoz gauzak planteatuz eta lehen-tasunetarako sendoago inbertitzen ikasi beharko lukete, bai ondasunen arloan eta are gehiago beharbada giza baloreenean eta espirituzko balioenean, batez ere hurrekoen artean, izan ere askotan, urruneko beharrak eta kasuak konpontzen saiatzeko bihotz handia erakusten baitute, etxekoa edo albokoa gehiegi ahaztuta.

Zer pentsatu handia eman dit Karim-ek eta bere inguruak, mundu horren irribarreak eta zorion-neurriak. Gauza asko falta zaizkie, baina lortzen dituzten apurrak eskertu egiten dituzte eta haiekin gozatu egiten dute. Gure arbasoek haienaren antz handiko gizartea izan zuten eta harez geroztik asko aurreratu dugula dirudi, baina, zorion, elkartasun eta gozamen onen bidean asko aurreratu al dugu Karim-en munduarekiko edo gure arbasoenarekiko? Ekonomia eta teknologian aurreratu duguna, ez al dugu galdu giza balioetan, familia-balioetan eta herri-balioetan? Edo zein traba edo aldrebeskeria suertatzen bazaigu bidean, dugun psikologiarekin eta hartu ditugun ohiturekin, egoera ezin jasanik, gizartea ez al zaigu lehertu eta mila zatitan txikituko?

Beasaingo Andramendi Ikastolaren web orria: **www.andramendi.com:** guraso berrientzako informazio gunea

Beasaingo Andramendi Ikastolaren eskaintza azaltzeaz gain, Haurtzaindegia eta Idazkaritza aukerak klikatuz gero, haurtzaroz guraso berriei eskaintako informazioa eskura daiteke, euskaraz. Hori guztia, **www.andramendi.com** web gunean.

2001. urtean Kilometroak jaia Beasainen egin zenean jarri zuen interneten Beasaingo Andramendi Ikastolak bere web orria. Hainbat berrikuntza sartzen joan dira azkenaldian, Orkli kooperatibaren dirulaguntzaz.

Andramendi Ikastolaren egoera aldatu egin da denbora tarte honetan, besteak beste, 0-3 urte bitarteko haurtzaindegia eskaintzen duela. Eskaintza hau kontuan hartuta, web orrian, guraso gazteentzat beraien haurren heziketarako interesgarriak izan daitekeen informazioa eskuratzeko aukera dago. Esate baterako: haurraren heziketari buruzko artikulua bilduma; haurren garapen psikomotorari, hizkuntza-garapenerari, elikadurari eta gaixotasunei buruzko oinarritzako informazioa; haurrondoari bu-



Web orriaren aurkezpenean, Tere Irastortza Beasaingo Ikastolako zuzendaria; Txani Lasa Ikastolako lehendakaria; Joserra Zubizarreta Gipuzkoako Ikastolen Federazioko lehendakaria eta Amaia Olano web orriaren diseinatzailea izan ziren.

ruz ama eta aitentzat dagoen legedia; familientzako laguntzak, edo eta haurren adopzio-mota desberdinak ematen duten loturak. Horiez gain, euskal izendegia, Jabier Agirrerren pediatria liburutik ateratako artikulua eta haurren liburu eta diskoei buruzko bibliografia ere aurki daitezke.

Guraso berrien eta haur txikien inguruko gaiak euskaraz tratatuko ditu **www.andramendi.com**-ek. "Euskarazko idatzizko merkatuan, erdarazkoan ez bezala, ez dago, osatzen diren familia berriei eta haurtzaroz diharduten aldizkaririk. Bestalde, erdaraz daudenek ez dute

"Euskarazko idatzizko merkatuan, erdarazkoan ez bezala, ez dago, osatzen diren familia berriei eta haurtzaroz diharduten aldizkaririk".

kontuan hartzen Euskal Herriko egoera: ez hemengo erakundeen laguntzak, eta, gutxiago, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ere", adierazi zuen Tere Irastortza Andramendi Ikastolako zuzendariak apirilaren 22ko aurkezpenean. Bergarako Unedeko Psikologia Saileko hainbat irakasleren laguntza du Beasaingo Ikastolak, haurren pedagogiari buruz aurrera egiteko.

Aurrera begira, baliabideak digitalizatu eta hamabostean behin orria berritzea da Andramendi Ikastolaren asmoa. Era berean, 2005erako euskaraz ez dakiten bikoteentzako haurrak euskal eredu-tan murgiltzeko eta gurasoen motibazioa lantzeko material bilketari ere ekin nahi diote.

Kazetari bereziak

Apirilaren 22an, Beasaingo udaletxeko batzar aretoan aurkeztu zuten **www.andramendi.com**. Kazetari bereziak izan ziren prentsaurreko honetan: Andramendi Ikastolako ikasleak, helduenak. Prentsaurrekoa nola ematen zen ikusten eta ikasten aritu ziren. Orain, komunikabide ezberdinetan albistea nola kaleratu den neurtuko dute.



**RENAULT
LAZKAO
GARAJEA**

☎ 943 882 442 / 943 888 901
Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea **LAZKAO**

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

ETXEGINTZARAKO MATERIALAK **APAIN** KONTENEDOREAK



Gres-ak

Bainugela eta
sukaldeetarako
azulejo eta
Gres-en
aukera zabala.



Azulejoak

Porcelanosa, Venus,
Keraben, Vives...



Bainugeletarako osagaiak

Bainugelarako
beharrezko
osagai
guztiak,
exposizioan
ikusgai.



Mamparak



Bainugelak



VELUX

APAIN

ETXEGINTZAKO MATERIALAK APAIN, S.L.

Kontenedoreak
Garraioak garabirekin
Mallutz, 6 - 20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa)
E-mail: apain@infonegocio.com
Telf.: 943 88 00 77 - Fax.: 943 88 82 60



Oilasko Eguna



MAIATZAK 15 LARUNBATA

Lazkaoko IRIZAR ANAIK-en

GAMA RURAL

Janari naturala

INDARTSU ETA OSASUNTSU HAZ DADIN

10 KILOKO POLTSA BAKOITZEKO

➔ OILASKO BAT OPARI


25 KILOKO ZAKU BAKOITZEKO

➔ HIRU OILASKO OPARI



Nutrimentos Purina

Banatzailea: Irizar Anaiak
Hiribarren kalea - Lazkao
Tel.: 943 887 500



PATXI ERRETEGIA

JANARI
TRADIZIONALA

HARAGI ETA
ARRAINA
TXINGARRETAN
ERRETA

Tel.: 943 801 901
LIERNIA

*Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak*

...

Lan bertikalak S.L.

*Pintura
Teilatuak
Tximiniak*

...



Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

'Hizkuntz eskubideak! Denon konpromisoa' ekimena bide onetik

Kanpainaren inguruko materiala salgai dago

Herritar ugari, ia 100 lagunek, bat egin du Ordizian 'Hizkuntz Eskubideak Denon konpromisoa' ekimenarekin. Euskararen normalizazio bidean, norbanakoon konpromisoa ezinbestekoa denez, Kontseiluak, maila ezberdineko konpromisoak hartzeko deia egin du. Ordiziako Euskalgintzak (Hitzaro Euskara Elkarte, AEK, Ordiziarrek Gera plataforma, Jakintza Ikastola eta Goierri Lanbide Eskola) bat egin du Kontseiluaren ekimenarekin eta ekintza ezberdinak burutuko ditu ekaina bitartean.

Hizkuntza eskubideen eta euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoak hartzea eta areagotzea du helburu Kontseiluaren ekimen berri honek.

Aurreko alean kaleratuko genuen 29 konpromisoko zerrendatik, bakoitzak norbere neurriko konpromisoak hartu beharko ditu. 'Hizkuntza Eskubideak! Denon konpromisoa' kanpainarekin 100 ordiziarrek baino gehiago egin du bat dagoeneko. Apirilaren 19an, Ordiziako pertsona ospetsu eta esanguratsuek egin

zuten bezala, orain herritarren txanda da.

Aukera ostegunetan eta larunbatetan

Konpromisoak biltzen dituen diptikoa ostegunetan eta larunbatetan eskura daiteke, Barrenan. Ostegunetan, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara dago aukera eta larunbatetan, goizetan, 11etatik ordu batera. Bakoitzak bina diptiko bete beharko ditu, bat Kontseilura eramateko eta bestea norberak etxera eramateko.



'Denon konpromisoa' moda

Kontseiluaren ekimen honen barruan, kamiseta ezberdinak salgai jarri dira. Gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako, launa modelo ezberdin daude. Moda-modako kamisetak dira guztiak ere, 20 eta 22 eurotan daude salgai. Haurrentzako ere bada aukerarik. Kamisetak, Barrenan, ostegunetan eta larunbatetan konpromisoak biltzeko jarritako mahaietan salgai aurkituko dituzue.



Apirilaren 29an, Barrenan egin zen konpromiso biltzea.



Ordiziatik goierritarrei deia

Euskal Herri osoan ari da burutzen kanpaina Kontseilua, herritako euskalgintzarekin harremanetan. Goierri, dena den, Ordizian bakarrik ari dira burutzen kanpaina, Hitzaro Euskara taldea, Ordiziarrek Gera plataforma, AEK, Jakintza Ikastola eta Goierri Lanbide Eskolaren bultzatuta. Beraz, Ordiziatik Goierriara dei egin nahi dute lerro hauen bitartez, goierritarrak, euskararen normalizaziorako konpromisoak hartzera Ordiziara inguratu daitezen.

Aizkorri, parke natural

Esan izan baliote orain ehun urteko artzain bati, Urbiako larreetan, ardi jendea baino ugariago, hankabikoa –eta lau erruedako gurdi motorduna ere– ikustekoa zela, erotzat joko lituzke denak; haren buruan ez zen kabituko, nola izan litekeen, donostiar bat zapatu goizean bere etxetik irten, Arantzazuraino joan, Urbiara igo eta fondan bere lagunekin salda hartu ondoren, bazkalorduan berriro ere bere etxean izatea.

Eta Altzaniako mendietan ikazkin-tzan arituko zen basomutilak, sinistuko al luke, gaurko egunean horrelako estrada kamino zabalak egotea Urdalur aldean eta halako makina traste tzarrak ibiltzea?

Garai berriak

Garbi dago, aldatu egin dira garaia; aldatu egin da gure mundua. Gaurko egunean ez gara mendian bizi, ez dugu mendiko “ondasunen” beharrik ere, ia-ia. Klean bizi baikara. Mendiak, garai batean, ondasunak produzitzeko zuen balioa oso gutxituta dago.

Baina horrek ez du esan nahi natur inguruaren beharrik ez dugunik. Izan ere, kaletartzeak mendialdea bestelako begiz ikustea ekarri du; hirialdeetako ekonomi garapen handia ezagutu duen jendeak beste zerbaite ere nahi du menditik. Orain artekoan edukitako natur ingurua galtzeko zorian duela sentitzen duenaren begirada du geroz eta jende gehiagok.

Kezka hori ez da gauza berri-berria. Orain dela ehun urte baino gehiago, Ameriketako hango natur inguruneak gorde eta babesteko asmoz, lehen parke nazionalak deklaratu zituzten (Yellowstone, 1872); geroxeago, gugandik gertuago ere bai (Ordesa eta Covadonga, 1918...).

Euskal Herrian ez da horrelako ia ezer egon aginte autonomoak eratu ziren arte. Orduan deklaratu ziren lehen eremu babestuak (Bertizko parke naturala, Nafarroan, 1984an; Urdaibaiko biosferaren erreserba, Bizkaian, 1989an...); orduan hasi ziren eremu babestuak arautzeko lehen legeak egiten (1987an Nafarroan, 1994an EAEn). Goierriko lurraldeari dagokionean, Gi-



puzkoako Aralar aldea orain dela hamar urte egin zuten parke natural.

Gure erkidegoko arauari begiratu, garbi ikusten da beren asmo bakarra ez dela aukeratutako natur eremuak, beste gabe, gorde eta babestea. Gure herrialdea txikia da eta jende asko bizi da; horregatik, aspaldidanik jo da inguru guztia erabili eta ustiatzera, baita goieneko mendiak ere; arauetan ez da us-tapien tradizionala (artzainena, baserri-tarrena...) galarazi nahi, natur ezaugarrien iraupenarekin baterabildu baino. Gainera, hirugarrenik, herritarrek natur ingurune horiek ezagutu eta -hondatu gabe, hori bai- bere aisialdian erabiltzea ere lortu nahi da.

Eta Aizkorri, zer?

Hortaz, non bizi garen ikusita, amets zoroa izango litzateke Aizkorri aldea Yellowstone txiki batean bihurtu nahi izatea; ez da hori kontua. Baten batek esan lezake, orduan, ez duela ezer egitea merezi; hemengo legeria erabiliz, Aizkorri gauza handiren bat ezin bada egin –eta, gainera, hobe bihar bertan ez dugula alferreko ahaleginetan hasi behar.

Aizkorri parke natural deklaratu gero -munduko eskasena izango balitz ere- araudi babesgarri bat izango luke eta, aurrerapenak eta hobekuntzak egiteko bezala, giro babeszaleagoa lortzeko bidean, lehen pausoa emango genuke. Egingo ote ziren Urdalur aldeko pista guztiak edo Illarragorriko antena edo beste gauza batzuk Aizkorri, Aralar bezala, parke natural deklaratu egin izan balitz?

Egia da izadia babesteko dauzkagun legeek ez dutela babes maila izugarriak eskaintzen eta hemengo mendi guztiguztietan ere aplikatu beharko liratekeen gauzak agintzen dituztela, baina ez litzateke txarra nonbaitetik hastera. Gainera, kontzientzia babeszalea piztu eta zabaltzen ere badugu galtza bete lan eta horrelako bitartekoak oso lagungarriak izan litezke.

Ona litzateke, edozein moduz, Aizkorriko parke naturalean ahalik eta lurralde gehienak sartzea; Otsaurte-Etxegarate inguruan, Araba aldean, Araotz-Arantzazu bailaran eta beste batzuetan, eremu osoarekin lotuta dauden sailak daude eta zentzugabea izango litzateke parketik kanpo uztea.

Zergatik Aizkorri aldea ez da oraindik parke natural?

Aurreko atalean esandakoen argitan, ezinbestekoa da galdera hau ere. Aizkorri aldearen ezaugarriak aspaldi samarretik parke natural diren beste eremu batzuen antzekoak dira, baina gure agintariek ez dute haiekin izandako jokabide bera izan eta hori larria da oso.

Parke naturalek ezer askotarako ez dutela balio pentsatzen badute, gaizki. Besteetan bai, baina Aizkorri premiarik ez dagoela –edo berdintsua litzatekeena, besteetakoaren modukorik ez dela behar- pentsatzen badute, okerrago. Aizkorri aldeak, beste leku askok bezala, bere babes araudia behar du.

Gure erakundeen ordezkariak aspal-di agindu zuten Aizkorri aldea berehala

izango zela parke natural (ikus "Goierritarra"n bertan, 1995eko abenduak albistea), baina lehen bezala gaude oraindik. Zergatik ez da emandako hitza betetzen edo, gutxienez, esplikazioren bat eskaintzen?

Ardura duten agintariek ez dute ezer esaten eta, oraindik okerrago, ez dute batera interesik erakusten gaia plazaratzeko. Entzun dugu halako erakunderen presioak daudela; agintariek, oraingoz, halako saltsatan sartzeko gogorik ez dutela... itxitasuna eta iluntasuna nabari dira parkearen kontu honetan. Ea artikulu honek -beste ezer lortzen ez badu ere- hautsak harrotzeko eta argi pixka bat egiteko balio duen, gutxienez.

Zer egin behar da Aizkorriko parke naturalean?

Hasteko, esan behar -aditu guztiek hala diote- parkearen eremu guztian modu bateratua lan egin eta Aizkorri aldeko ekosistema bere osoan babesteko politika bultzatzea litzatekeela abiapuntua. Parkearen eremua zabala izango da eta tokian-tokian jokabide bereziak beharko dira, baina guztiak ere helburu orokorrako batzuen barruan behar.

Aurreko atalean aipatutako presioak eta interesak parkearen ibilerari ekiteko oztopo gertatzen ari diren bezala, biharko egunean ere beste horrenbeste gerta liteke parkearen egitekoak zertzeko garaian. Arabako halako herri, edo Partzoneria, edo Oñatiko udala Arantzazun, edo Diputazioko Departamentuak... ikatza nor bere opilari inguratu nahian hasten badira, akabo; naturaren babesaz aparteko interesak nagusitzeko bidea jarria legoke orduantxe.

Horregatik, jar daitezela guztien hitza entzuteko bideak, bai, baina gero aginte bateratu eta bakarria egon dadila, parkeko gaien gestioa aurrera eramateko garaian.

Bigarrenik, entzun eta ikusi ditugun zenbait gauzaren aurrean esan behar den beste zerbait. Parkearen helburua natura babestea da eta hori garbi utzi behar du, hasieratik beretik; eta berehalako ekonomia onuraren bat dakarten jardupideak bigarren mailan egon behar dute, beti ere, helburu nagusiaren mende.

Dudarik ez dago mendiak diru irabazpideak ere eskaintzen dituela. Pago sail bat

ateratzeak, konparazio baterako, dirua eman dezake, baina horrek ez digu ahaztarazi behar parkearen helburua pagadietako habitata gordetzea izan behar duela. Aisialdiko jarduerak ere dirua ekartzen dute, baina zeren truke den galdetu behar; esate baterako, ehiza orain arte diru iturri izateak ez du justifikatu behar horretarako inbertsioak egitea (Aldaolako kaminoa); edo mendi aterpe berriak; edo jatetxeak... zerrenda luzea egin ahal izango litzateke.

Parkeko arauetan horiek garbi jartzea komeniko litzateke, gero "parke natural" izenaren azpian edozein gauza izan ez dezagun.

Hirugarrenik, aurrekoari lotutako beste zerbait. Bizi garen gizarte honetan gauzak ez dira debalde, ez ematen, ez eskuratzen. Eta bada jendea -nolabait ere, osorik nahiz neurri batean- parkeko lurraldean dagoen ondaretik bizibideren bat duena.

Gizarte osoarentzat izango den zerbaiten prezioa horrelakoek -eta berek bakarrik, gainera- ordain ez dezaten, herri erakundeek laguntza plan ahalik eta eskuzabalen bideratu beharko lukete; baina ez orain arte zeukatena, beste gabe, abandonatu eta uzteko, ahal den neurrian, parkearen helburuekin beste modu batean bateratu, lotu eta uztartzeko baina.

Parkea, bestalde, beste jarduera batzuen abiapuntu ere izan liteke. Inguruko herrietan zerbitzu berriak sortu beharko dira eta horrek biziberritu egingo ditu. Horrelakoe-tan ere, erakundeek bere laguntza planak bideratu beharko lituzkete, hori bai, neurri-gabekeriak ez ekartzeko moduko planak pentsatuz.

Ez da gauza berria laguntzabideen kontu hau, baina ez gara oharkabeen ere ari beren beharraren gainean. Orain arte gure erkidegoan egindako parke naturaletan izen ponposoa jarri bai, baina gastatu, ezer gutxi gastatu da eta horrela ez dago aurrerabiderik.

Ea azkena izateak, Aizkorri aldeari ben-tajaren bat ekartzen dion, behintzat; beste-etan egin diren akatsak errepikatu ez eta -hemendik aurrera, gauzak txukun eramanda- aurrea jartzeko aukera eman diezaio-la.

Antonio Berasategi

GARIAIEN GARAIOA

✓ Maiatzaren 4an, gure zeru-
etean **ilargi eklipse oso bat ikuskatu ahal izan zen**. Lurretik punturik gertuenean egongo da ilargia eta ondorioz berez ikusi ohi dugun neurria baino handiagoarekin azalduko da.

✓ Saharaz bestaldetik, negua pasa ondoren **berehala izango ditugu antzandobi arruntak gure inguruan**. Hauen migrazio garaia apirilaren amaiera aldea ematen bada ere, daukagun giroarekin ez harritu zertxobait atzeraturik azaltzea. Beste horrenbeste gertatu ohi da enara azpizuriarekin. Dena den jada ikusten dira balkoi azpi eta hormetako habiak betetzen.

✓ Gure inguruetan **zizak ere hasi dira**. Asko ikusten ez badira ere badaude oraindik ere sasi eta zelaie-tan. Ziza leku asko galdu egin dira azken urte haue-tan batez ere abonoa bota-tzeagatik eta zelaie-tan era-biltzen diren produktu kimi-koegatik. Zain ditzagun le-ku hauek, hain preziatuak diren perretxiku txiki hauek betirako gal ez ditzagun.

✓ 1986. urteko apirilaren 26an **Chernobil-en gerta-tatu zen istripu nuklea-rra gogoratzuz**, ez deza-gun ezbehar tamalgarri ho-ri ikasketarik gabe utzi. Esaldi zahar bati errepara-tuz: hutsegiteetatik ikasten ez duenak berriro burutzer-a kondenatzen da. Beste ba-tek honela dio: hutsegite bat ez zuzentzeak beste hu-tsegite bat betetzea supo-satzen du. Nuklearrekin ja-rraitzen dugunez, ez da us-te ezer konpondu zenik Chernobil-en. Gutxienez... ikasten ari ote gara?

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44


"Ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen' liburua Ipar Amerikako indiarren kronika euskaraz Joxe Luis Aramendiren eskutik

Ipar-Amerikako indiarren munduari eta mundu ikuskerari buruzko libururik klasikoena, Dee Brownen 'Ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen', euskaratu du Joxe Luis Aramendi itsasondoarrak. Txalaparta argitaletxeak kaleratu du, Ostiela aldizkariaren laguntzaz.

Obra hau best-sellerra izan zen 70. hamarkadan. 17 hizkuntza ezberdinetara itzulia da. Orain, Joxe Luis Aramendiri esker, euskaraz irakur daiteke Ipar Amerikako indiarren historia. 'Ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen': 560 orritik gora. 60 argazki, irudi eta kantuen pentagrama eta mapaz horniturik.

Urteetako lan ixila

1970ean kaleratu zen AEBn Dee Brownen liburua eta Joxe Luis Aramendiren eskutara 80. hamarkadaren hasieran iritsi zen, Bruguera argitaletxearen gaztelerazko bertsioa. "Gaietik irakurri nuen eta liburua ikaragarri gustatu zitzaidan. Batez ere, deskubrimendua izan zen, gure haurtzarora hainbeste markatutako komikietako pertsonaiak, errealtatea izan zirela ikustea. Komikietan ezagututako fikziozko pertsonaiak benetazkoak zirela konturatu nintzen". 1990. urtean beste edizio bat eskuratu zuen. "Itxura aldetik oso edizio txukuna zen, argazki eta guz-



Joxe Luis Aramendi:
"Dee Brown duela bi urte hil zela jakin dugu orain".

ti. Arretaz irakurri eta izugarritzko zirrara sortu zidan, hain urte gutxian hain hedadura handiko lurraldeak nola erabat itxuraldatu eta eskuz aldatu zirela ikusita. Liburuaren itxurak ere zirrara sortarazi zidan". 1992. urtean, Amerikako aurkikuntza-ren 500. urteurrena zela eta, "jolasean hasi nintzen, itzuli ote zitekeen ikusiz, argitaratzeko inolako asmorik gabe. Hasi eta bukatu urte hartan bertan egin nuen. Puntatik puntara itzuli nuen. Harrezkeroztik, kajoian sartuta egon da, Jon Arano etorri arte". Jon Arano itsasondoarrak eta orduan Ostiela aldizkariako arduradunak, harriturik ikusi zuen burututako lana eta altxor hura argitaratzeko beha-

rra aipatu zion behin eta berriaz Aramendiri.

Mekanografiatutako 400 orriak ordenadorera pasatu, gramatika zuzenketak egin... lan gogorra egin behar izan dute Aramendik aipatu digunez. Gramatika inguruko zuzenketak Jon Urrujulegi, Andoni Eskisabel, Mikel Aramendi eta Jon Arano goierri-tarrek egin dituzte, "nik itzuli nituenetik hona Euskaltzaindiak arau asko aldatu baititu".

Itzulpen aldetik, irizpideak zehazten ere nahikoa lan izan du. "Izen asko nahiko trakets egiten dira euskarara moldatzeko. Izenburua bera ere, Kneen, atzizkia nola erantsi eztabaidatzen aritu ginen. Tribu izenak ere berdin. Ha-

sieratik irizpide garbia neukan, errespetatu egin behar zela grafia, hizkuntza ezberdinetan mantendu egin dituztelako".

Kubako edizioa eredu

Txalaparta argitaletxearekin harremanetan jarri zirenean, Kubako edizio bat ekarri eskuratu zuten "eta beste bertsio bat zen hura. Edukiaren aldetik ez zegoen diferentzia handirik, baina itxura aldetik, berriturik zegoela ikusten zen. Nondik atera ote zuten jakin nahi izan genuen eta 2001ean, AEBetan azkeneko edizio berritua atera zen. Harrekin konparatzen hasi eta Kubako edizioa oso estu zegoela ikusi genuen. Egileak zuzendutako zenbait berrikuntza eta zuzenketa zeudela ikusten zen", dio Joxe Luis Aramendik.

Belaunaldi berriak

Bi arrazoik bultzatuta erabaki zuen Joxe Luis Aramendik liburua argitaratzea. Batetik, "gai hau Euskal Herrian ez zegoen asko ikututa eta motibaziotariko bat hori izan zen. Bestetik aukera ematen zuen, sasoi horretan Ipar Amerikan gertatu ziren konkista edo epopeia hartako gertaera asko eta asko liburu batean irakurtzeko". Era berean, belaunaldi berriei, errealtatea azaldu nahi izan die: "Liburu hau jendearen eskutan jarri nahi izan dut, batez ere belaunaldi gazteek guk bezala begiekin ez dituztelako farwesteko pelikulak ikusten. Pelikula horietako zenbait datu historiko, okerrak dira", dio itsasondoarrak.

"Komikietan ezagututako fikziozko pertsonaiak benetazkoak zirela konturatu nintzen"

"Indiarren ikuspegitik idatzitako liburua da"

Mendebalde Urrunaren Konkista edo Epopeia Amerikarra izeneko aro historikoa ematen du aditzera 'Ehortzi ezazue ene bihotza Wounded Kneen' liburuak. XIX. mendeko 2. erdialdean indiarren aurka eginiko gerra eta saraski gehienak dakartza. Liburu honek bertute ugari, pasarte gogor eta ederrak, hunkigarriak biltzen ditu, indiarren ikuspegitik idatzia.

Sarrera esanguratsua du liburuak. "Ez da gure burua edertzen duen liburua, baina historiak baditu bere bidexkak oraindira iristeko, eta agian, irakurriko dutenek, indiar ipar-amerikarren izaerari buruzko ikuspegi argiagoa izango dute, iragan garaietan nolakoa izan zen jakitean. Beharbada indiarren ahotan hitz zuzen eta arrazoizkoak entzuteak, harritu ere egingo ditu, mito ipar-amerikarren errukirik gabeko basatien izaera este-reotipatu horretan finkatuta agertzen baitira. Agian, lurra kontserbatu eta zaintzeko erabateko joera zuen herriarengandik ikasi ere zerbait ikas dezakete Ama Lurrarekin norberak duen harremanari buruz. Indiarrek bazekiten lurraren eta beronen emarien baitan dirauela bi-ziak, Amerika paradisua zela, eta ezin zuten ulertu ekialdeko arrotzak nola zeuden, indiarra zen oro, amerikarra izanik ere, jo eta txikitzeo erabakia hartuta".

Tren talka

1860-1890 garaian kokatzen da liburuak. AEBtako gobernuaren eta armadaren jokaraz indiarrei sortu zizkien gose, sufrimendu eta askotan heriotza gaiztoak, horixe li-



Hodei Gorria:
"Promes asko egin zizkiguten, gogora ditzakedanak baino gehiago; horiek guztietatik, ordea, bat bakarrik bete zuten: Gure lurra kenduko zigutela agindu zuten, eta halaxe egin zuten"

tzateke, bi hitzetan esanda, liburuaren edukia. Bertan, tribu indiarren aniztasuna (eta beraien arteko leinu, klan, eta abar ezberdinen), beren biziera, kokaleku, bizibide, ingurune, ikuspegi kosmiko-erlijioso, ohitura desberdinak ageri dira. "Gizon zuriaren eta gizon gorriaren topo egiteak bi zibilizazio oso desberdinen tren-talka ikaragarri baten antza hartzen du", dio itsasondorak.

Aramendik argitu nahi izan digunez, "alde batetik, ikusi beharko genuke zerk eragiten duen. Konkista hori ez da kasualitatez gertatzen. Garai hartan hazkunde demografiko handia gertatzen da AEBetako ekialdean. 30 urtean, lehen halako bi izatera pasatu ziren. Horrek egiten du mendebaldeko alderako

joera. Batzutan, nahiz eta Gobernuak bera izan mendebaldeko jotzeko joera duena, liburuaren hasieran ikusten da, Missouri egiten duen muga natural horretan, AEBetako Gobernuak muga jartzeko ahalegina egin zuela, jendea geldiarazteko. Baina benetan ezin du jende uholdea gelditu".

Pertsona onak eta txarrak, leku guztietan daudela gaineratu du. "Liburuak irakurtzen ari zaren neurrian konturatzen zara izaera eta jokaera ezberdinetako pertsonak daudela, hala indiarrean aldean, hala zurien aldean. Behin kolonizazioan murgilduta, denetariko pertsonak ikusten dira. Badaude portaera krudelenak, portaera basatienak, bi aldeetatik; baina jende ona agertu egiten da,

egoerarik larrienetan. Zenbait militar badaude, momentu batean uko egiten dietenak hainbat ekintza egiteari, beraien kargua arriskuan jarrita".

'Destino nabaria'

Gizon zuriaren eta gizon gorriaren arteko talka honetan, 'Destino nabaria' ideologia azpimarratu nahi izan du itsasondorak. "Ideologia, zalantzarik gabe, arrazista. Ideologia horrek esaten du, mendebaldean dauden hainbeste aberastasun, ezin duela Jainkoak edo Probidentziak, han bizi diren gizagai-xo haien eskuetan jarri, alperrik galtzen uzteko. Baizik eta hori dena gobernatu, zuzendu eta horretaz aprobetxatzeko gizaki zuria dagoe-la. Orduan han bizi den jende gorriari, bere historiaren amaiera iritsi zaiola, Erromari bere amaiera iritsi ziztzaion bezala, aipatzen da".

Erreserba politika

AEBetako Gobernuaren Erreserba politika ere aipatzen da liburuan. "Okerrena da hasierako erreserba politika hartan egindako negoziaketetan eta beste batzutan inposaketetatik ateratako baldintzak ez dituztela errespetatu. Berez erreserban sartzea baino gauza okerragoa zen, erreserba horretako estatua ez errespetatzea, lur onenak kenduz adibidez".

Aramendik gaineratu duenez, "liburuaren amaieran ematen du triburik gehienak desagertu egin direla baina ez da horrela. Tribu gehienak mantendu egiten dira, kide gehiago edo gutxiarekin". Liburuaren bukaeran, tribuen zerrenda osoa dator.

Joxe Luis Aramendi

**Ipar Amerikan egon gabe dago,
baina bertan egonda bezala
laburbildu digu indiarren bizitza.**

Kiosko digitala: auto-zerbitzua Fotoetxen



Argazkigintza digitalaren aro berrian sartuta gauden honetan etengabe gora egiten ari da kama digitalen salmenta. Behar berriei aurre egiteko Goierrin nobedade diren bi eskaintza berritzaile aurkeztu ditu Beasaingo Fotoetxek.

Hori bai, orain arte bezala, argazkiak Cd-an edo kameraren txartelean eraman eta argazkiak paperera pasatzeko aukera ere badago. Modu honetan argazki dendako profesionalak, argazkiak ukitu eta txukuntzeko aukera izaten da.

Kiosko digitala: auto-zerbitzua

Dendan sartu eta ate ondoan jarrita dagoen ordenagailuan, kutxazain automatikoa izango balitz bezala, kameraren txartela edo cd-a sartu eta ateratako argazkiak ikus daitezke. Argazkiak aukeratu eta zuzenean bertako laborategian paperean bota zain gelditzen dira. 10 x 15 neurria erabiltzen da gehien, baina beste aukera batzuk ere badaude.

Sistema honetan ez da eskaintzen zuzenketa kromatikorik egiteko aukerarik. Horretarako, dendako profesionalak eskaintzen duten betiko zerbitzua dago, digitalean



Kameraren txartela edo cd-a sartu eta argazkiak norberak pantailan aukeratu eta inprimitu zain utzi daitezke.

ere, zuzenketak banan-banan egin ez.

Bezeroak argazkiak aukeratu eta ordenagailuak tike bat eman dio, argazki kopurua eta diru kopurua zehaztuz. Ordainketarako bi bide daude: txartelarekin ordenagailuan bertan, eta eskura, mostradorean. Goizetik arratsaldera argazkiak prest izaten dira.

Geroz eta zabalduagoak dauden argazki makinadun sakeleko

telefonoentzako ere balio du zerbitzu honek. Argazkiak atera eta telefonoz bidaltzeaz gain, Fotoetxen norberak nahi duena aukeratu eta paperera pasatzeko aukera izango du.

On line ekainetik aurrera

Edozein lekutan eta edozein ordutan internetaren bidez ere argazkiak paperera pasatzeko aukera eskainiko du Fotoetxek ekainetik aurrera. Fotoetxeren web orrian (www.fotoetxe.com) sartu eta bertan paperean bota nahi diren argazkiak aukeratu ahal izango dira. E-mail bidez jakinarazpen bat bidali beharko da lehendabizi. Hori bai, ondoren argazkiak jasotzera, dendara joan beharko da.

Fotoetxe argazki denda
fotoetxe@euskalnet.net

Tren geltokiaren aurrean Beasain
Bideluze plaza,2 Beasain

943 88 46 05
943 88 96 88

Segurako Ardixarrane etxeko ikusentzunezkoa prest Sei minutuan, Segurako historia, Ardixarreneko Maialen mamuak kontatua

Turismoa, kultura eta ondarea bultzatzeko asmotan buru belarri ari da lanean Segura. XVI. mendeko Ardixarren etxeko Turismo Bulegoan, apirilaren 30etik, sei minutuko ikusentzunezkoa dago ikusgai.

Ardixarreneko Maialen alabak, denboran atzera egin eta Ertaroko Seguran murgilduko gaitu, Lardizabaleneke Andrea irakasle harturik.

Segurara bisitan datorrenentzat Ardixarra etxea da harrera lekua. Bertan dago Turismo Bulegoa, Segurari eta inguruari buruzko informazioa emateko. Turismo Bulegoan bertan, Segurako historian zehar barneratuko gaituen ikusentzunezkoa ikus daiteke orain. Apirilaren 30ean egin zen aurkezpena.

Sei minutuko ikusentzunezkoan, Ardixarreneko Maialen mamuak bisitariari, Segurari buruzko kontuak kontatuko dizkio. "Konturatu ginen, bisita gidatuetan gehienek galdera berdintsuak egiten zizkigutela. Orduan, era sinple eta erraz batean prestatutako ikusentzunezko-



Apirilaren 30ean egin zen aurkezpena. Mikel Areizaga alkatea,, Manu Errezola Turismo Zinegotzia, Nikolas Osinalde Goiturreko ordezkaria eta Mercedes Rodriguez Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendaria izan ziren bertan.

an, historia aldetik Segurak zein garrantzi izan zuen eta Seguraren ingurunea eta paisaia ikusteko aukera izango da. Segurako irudia herri kaskotik zabaldu nahi dugu,

eta jendea inguruan prestatuta ditugun hiru ibilbideetara gonbidatu nahi dugu".

Maialen mamua da ikusentzunezko protagonista. XVIII. mendean jaio zen

Ardixarra: Erdi Aroko Interpretazio Zentroa

Ardixarra etxea bera ere bisitatu daiteke. Lehenengo pisuan aldi bateko erakusketak jarriko dira eta bigarren pisuan, Erdi Aroko Interpretazio Zentroa jartzekotan dira. Ekainaren bukerarako bukatua egotea espero dute. "Garbi geneukan Segurak Erdi Arotik jo behar zuela, aproposa delako bere hirigunea".

Interpretazio Zentroa hiru zatitan banatuko da. Batetik, hiribildua sortzeko prozesua, erret bideak, fundatzeko ezaugarriak... Bestetik, XIV. mendean Segura nolakoa zen ikusteko aukera egongo da, ikusentzunezko eta maketa bidez. Eta azkenik, Erdi Aroko gizarte soziala ikusteko aukera egongo da. "Garai hartan sinbolikoak ziren pertsonaiak hartu eta beraien lanbidea kontatuko da", argitu du Josune Arrondok.

Maialen eta oso gazterik hil zen. Neskamea izan zen. Josune Arrondo Udaleko ordezkariak kontatu digu zergatik sortu duten mamuaren irudia. "Lehenagoko pertsonaia bat aurkitu nahi genuen Erdi Aroa azaltzeko, baina baita ere jakitun ginen, Seguran hiribilduaren forma dela Erdi Arokoa geratzen zaigun gauza bakarra. Arkitektura aldetik, XVIII. mendeetan sartzen gara. Beraz, mamuaren historia asmatu genuen, mamua lehen bizi zelako, baina gaur egun arte ere bizitzen jarraitu dezakeelako. Bestela oso zaila zen lotzea. Maialen neskamea zen eta neskame batek eduki dezakeen kultura maila eta etxekoandre batena ez dira berdinak, orduan, Lardizabaleneke andrea irakasle bezala jarri dugu".

Ikusentzunezkoa ikusi nahi duenak, Turismo Bulegora jo behar du. Asteburuetan irekita egoten da. Jarraian duzue ordutegia: ostiraletan, arratsaldeko 4etatik 7etara, larunbat, igande eta jaieguneetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Ordutegi horretatik kanpo ikusi nahi izanez gero, udaltxera deitu behar da, hitzordua jartzeko (943801006).

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



GOIERRI 21
Ahots guztien lekua

Garapen iraunkorrerako bidea Udalak Aalborg-eko gutuna sinatzen

1992. urtean, Rio de Janeiro, Ingurumenari eta Garapenari Buruzko Nazio Batuen Konferentzia antolatu zen. Konferentziaren ondoren kaleratutako dokumentu nagusietako bat Agenda 21-a da. Bertan, besteak beste, garapen iraunkorrerako bidean hainbat eragileren eginkizuna zein den zehazten da, Udalerriena eta Hiriena adibidez. Berehala, zenbait Udalerrietako agintariak lanerako prest agertu ziren eta Tokiko Agenda 21 sortu zuten.

1994. urtean, Aalborg-eko hirian, Europako zenbait Hiri eta Udalerri eginkizun hauek bere egin zituzten, Aalborg-eko gutuna izenez ezagutzen den dokumentua sinatuz.

Azken egun hauetan eskualdeko zenbait Udaletxeetako udal batzak Aalborg-eko gutuna sinatzea adostu dute. Honela, Beasain, Olaberri, Zegama, Ormaiztegi, Legorreta eta Idiazabalgo udalek

iraunkortasunaren alde lan egiteko konpromisoa azaldu dute jada. Eskualdeko gai-nontzeko udalek ere konpromiso bera hartuko dute laster.

Gu geuk ere lagundu dezakegu gure Lurraren bizibaldintzak hobetzen. Horretarako Iraunkortasunaren 12 irizpideak ahal dugun neurrian aurrera eraman behar ditugu.

Irizpide hauetako batzuk beharbada abstraktoegiak suerta daitezke, horregatik, datozen aleetan eguneroko bizitzan hartu ditzazkegun zenbait arduren adibideak azalduko ditugu. Ea honela, denon artean, garapen iraunkorrerako bidea hartzen dugun.

Iraunkortasunaren 12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gaingitzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundera.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoen aurrean.

Laburrak

Garapen iraunkorra da, Euskaltzaindiaren iritziz, "naturari kalte larriak egin gabe manten daitekeen garapena" kontzeptua adierazteko, euskaraz erabil daitekeen modurik egokiena. Horrela erabaki zuen Akademiak, urtarilaren 30ean, Donostian, egindako osoko bilkuran.

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11

www.anzizar.com

BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27



BEASAIN

Olagi Sagardotegia

Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA



ZUZENKI

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosegi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin

www.txekin.net



Zape festa

Pottoka gunea inauguratuko da

Bihar, maiatzak 8, Zape taldeak antolatutako, festa izango da. Goizeko 11,30etan, pottokaren guneari inaugurazio ofiziala egingo da. 13:00etan, herrian, poteoa egingo da, trikitiak alaiturik. 14:30ean, Zubi Buru elkarteak, bazkaria izango da. Azkenik, bazkalondoren, mus txapelketa azkarra jokatu da, bi usteletara,

Herri Urrats

Igandean, maiatzaren 9an, Senperen egingo den Herri Urrats festara joateko autobusa antolatu da.

San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunean, baserritarren eguna ospatuko da. Egitaraua oraindik zehaztu gabe dago.

Zahar egoitzaren jarduerak

Maiatzaren 11n, Gipuzkoako kosta aldera irteera egingo dute, gizeko 9etan, plazatik abiatuta. Bazkaria Zestoako Arozena hotelean izango dute.

'Hitzak patriketan' antzerkia

Kutxaren bitartez, haurrentzat antzerki saioa izango da, gaur, maiatzak 7, arratsaldeko 5,30etan, Antzokian.

Donato Goyenecheren kontzertua

'Danborraren erritmoan' kontzertua ere Kutxaren bitartez antolatu da. Maiatzaren 14an izango da, gaueko 10,15etan, Antzokian.

Elbarrena Industrialde berriko pabiloien salmenta

Zaldibiako Udalak Elbarrena Industrialde berriko pabiloia erosteko lehiaketa irekia jarri du martxan. Udalak adierazi duenez, pabiloien kokapena paregabea da. Izan ere, autobidetik 2 kilometrotara daude. Gainera, Larraitza doan bidetik erraz ikus daitezke.

Bestalde, Udalak jakinarazi duenez, pabiloia modulatutako zatitu daitezke. Moduloak 250 metro karratukoak edota 500 metro karratukoak izan daitezke.

Metro karratua 539 eurotan salduko da, hots, 90.000 pezeta. Interesatuak EAEko iragarki ofizialetan agertzen denetik 26 eguneko epea dute Udaletxean izena emateko. Halere, pabiloia berrien inguruko informazio gehiago eskuratu nahi duenak Zaldibiako Udalera jo dezake.

Eduardo Sorraluze

'Gerrako haurrak'

Euskal Fondoak antolatutako 'Gerrako haurrak' erakusketa ikusgai izango da maiatzaren 14tik 24ra. Orduetgia ondoak da: astelehenetik ostirale-

ra, 16:00etatik 19:30era eta larunbat eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.



San Isidro eguna, baserritarren eguna

Urtero bezala herriko baserritarrek beraien eguna izango dute maiatzaren 15ean. Aurtengoan larunbata da.

Egun hori behar bezala ospatzeko hitzaldia antolatu da Kultur etxean, 'Munduari itzulita bizikletaz' emanaldia. Eneko Etxebarrietak 4 urtetan zehar egin dituen 46.000 kilometro eta bisitatu dituen 35

herrialdeetara gerturatuko gaitu bere emanaldiaren bitartez. Emanaldiak orduete inguru iraungo du eta Kultur etxean izango da arratsaldeko 7etan.

Ondoren meza izango da elizan eta egunari behar bezalakoa amaiera emateko afaria Ostatuan.

Lierniko Ama Birjina Donostian

Aurreko alean aipatzen genuen Lierniko Ama Birjinaren irudia Donostia aldera eramanez dutela, Gipuzkoako Elizbarrutiak antolatu duen erakusketa erakusgai egoteko ekainaren 6ara bitartean. Gipuzkoako beste 40 Ama Birjinen irudiekin batera jarri da Donostiako Museo Diozesanoan, Amarako Sagrada Familia, 11n. Orduetgia: goizeko 10etatik 1era eta arratsaldean, 5etatik 7etara.

Liernin Patxi Erretegia berriz irekita

Maiatzaren 1etik aurrera berriz ere atek ireki ditu Lierniko Patxi Erretegiak. Asteartean atseden eguna izango dute.

Saskibaloiko pista

Jarri berriak dira Kultur etxearen aurrealdean saskibaloian jokatzeko kanastak.

Iñaki Ugalde

San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean, San Isidro eguna ospatuko da herrian, Udaletxetik, festan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dute lerro hauen bitartez. usadio zaharrari eutsiz. Herri afarirako izena emateko azken eguna, maiatzak 13, osteguna da. 943-889564 telefono zenbakira deitu behar da izena emateko.

Jarraian duzue prestatutako egitaraua:

20:00etan: Herri meza.

Ondoren: herri afaria Kale Txiki jatetxean.

Afalondoren, Xabier Zeberio eta Gregorio Larrañaga 'Mañukorta' bertsolariak.

Eguna amaitzeko, Jexux Telleria eta Jexux Mujikaren jazpana.

On-Bide Kultur Elkarteak antolatuta

Gaintzako XX. mus txapelketa

Bihar, larunbata, maiatzak 8, gaueko 9etan, On-Bide elkarteak jokatu da XX. mus txapelketa. Izen ematea gaueko 9,30etan itxitko da. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. 4 erregetara jokatu da eta bikotekide bat gutxienez, herritarra izatea da baldintza.

Sariak: 1.arentzat, txapelak, trofeoak, ahuntz gazta pareta eta 100 euro; 2.arentzat, trofeoak, antxumea eta 75 euro; 3.arentzat trofeoak, arkumea eta 60 euro; 4.arentzat, saskia eta 50 euro; 5.arentzat bi afari eta 20 euro; 6.arentzat, Oilasko pareta eta bi txanpain botila; 7.arentzat pare bat txuleta eta bi ardo botila; 8.arentzat, bi txanpain botila.

Ezkioko jaiak

Asteburuan, maiatzaren 7tik 9ra bitartean festa egunak izango dira Ezkion. Jarraian duzue antolatu den egitaraua:

Maiatzak 7, ostirala:

21:00etan: Herri afaria.

Maiatzak 8, larunbata:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Luntxa.

17:00etan: Haur jolasak, bertso antzerkia, jokoak eta txokolata jana.

17:30ean: Mus txapelketa.

18:30ean: Goruntz dantza taldearen emanaldia.

Egun guztian Lutxurdio-
ren trikitixa izango da entzungai.

KZ Gunea

Goierriko beste herri guztiei bezala Gaintzari ere iritsi zaio txanda KZ gunea martxan jartzeko. Dagoeneko gehienok ezagutuko duzue zer den eta zertarako erabiltzen den gune hau baina labur-labur aipamena egingo dugu. Esan, gaur egun hain modan dauden ordenagailu eta internet mundua gertuagotik ezagutzeko aukera ematen duen gunea dela aipaturiko KZ gune hau. Ezagutza hori bideratzeko erakusleak izango dira eta ikastaroak antolatuko dira. Beraz, herritar guztioi deia zabal-tzen zaizue parte hartzeko eta horretarako zuen udalarekin harremanetan jartzea besterik ez duzue. Ea, denok zerbait gehiago ikasten dugun teknologia berriei buruz.

Auto zergaren kobraketa

2004ko ekitaldiari dagokion autoaren zerga ordaintzeko epealdia ere berehala zabaltzekotan da. Bakoitzari etxera jakinarazpena iritxiko bazaio ere, datorren maiatzaren 10etik ekainaren 18arte izango da ordaintzeko denboraldia.

Ur erreziiboak prest

Herri gehienetan bezala oraintxe da garaia kobraketak egitekoa eta aurrekoan auto zerga aipatu badugu, oraingoan ur errezioben kobraketa aipatu behar dugu. Hauek ere prest daude udaletxean eta nahiz eta bakoitzari etxera jakinarazpena iritsi-ko zaion, ordainketarako epea maiatzaren 10etik 31artekoa izango da.



Maiatzak 9, igandea:

11:00etan: Meza herrian hildakoen alde.

12:15ean: Toka txapelketa.

17:30ean: Poniak eta xexenak.

19:00etan: Arrospide-Esnaola eta Azurmendi-Ugarteburu. 60 ontzako 8 enbor ebaki beharko dituzte.

Egunean zehar herriko trikitialariak arituko dira giroa alaitzen.

Udal ordezkariak Sahararren kanpamentuetan

Aste Santuan herriko bi udal ordezkari, Rosa Sagarna eta Maria Martinez, Sahararren kanpamentuetan izan dira. Orain urte batzuetatik Ormaiztegi Saharako Miyec herriarekin anaikideturik dago, eta hain zuzen ere Miyec herria bisitatu eta bertakoek bizi dutenaren lekuko izan dira. Euskal Herritik joandako 300 pertsona inguruko talde baten partaide izan dira, bertako eskola, ospitale, irrati eta abar bisitatzeko aukera izan zutelarik.

Beraiekiko elkartasuna adierazteko asmoz, Udalaren dirulaguntza eta herriko haur eta familiek prestaturiko opariak eraman zituzten. Kanpamentuetako kideek ere gure herriko haurrentzat opariak bidali zituzten. Aldi berean jasotako dirulaguntzarekin bideratuko dituzten proiektuen berri zuzena gure herrira bidaltzeko konpromisoa ere hartu zuten, gure herriko bi udal ordezkariak bertako udal ordezkariekin bilkura berezian partaide izan zirelarik.

Bardularrak elkartean txotx eguna

Bardularrak elkartean I. Txot Eguna antolatu dute, maiatzaren 22rako. Isastegiko sagardoa dastatzeko aukera izango duzue nahi duzuen guztiek. 15 euroren trukean ondorengo menua dastatzeko aukera ere izango da: bakailau tortila, saiheskia, gazta, irasagar eta intxaurrek. Txartelak erosteko azken eguna maiatzaren 15a da; salmenta lekuak Itxune, Arantxa, Murua eta Jubilatuen elkarteko tarbernak dira.



Ikusentzunezkoa maiatzaren 7an

Hain zuzen bertan ikusi eta jasotako mezuaren berri zuzena herritarroi hurbiltzeko asmoz ostiralean, maiatzaren 7an, arratsaldeko 6,30etatik aurrera kultur etxeko aretoan, Saharatarren kanpamentuetan osatutako ikusentzunezkoa ikusgai izango dugu. Beraiek bizi duten egoeraren berri emango dute, derrigorrez jasaten ari diren bizi egoera nolakoa den azalduko dute. Rosa eta Mariak burutuko duten ikusentzunezkoan Frente Polisarioko ordezkaria den Salemek ere parte hartuko du, bera izango baita aipatu ekitaldiaren aurkezpena egingo duena.

Ikusentzuenzkoaren helburua saharatarren kanpamentuetan bizi duten derrigorrezko egoeraz herritarrak sentsibilizatu eta kontzientzia hartzea da. Aldi berean udagure artean pasa dezaten Saharar haurrak hartzeko familiak behar direla informatzeko ere balioko du, udaletik aurtengoan ahalegin berezia egin nahi baita herrian aipatu egoera bizi duten haurrak har daiteze. Beraien osasunarentzat eta garapenarentzat erabat onuragarria baita udagure artean igarotzea. Beraz leerro hauetatik ere gonbidapen zabalena eta dei berezia egingen zaizue udan zuen familietan haurren bat har dezazuen.

Aitziber Murua



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

943 02 73 56 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



Jauregi
TOLDOAK

BEASAIN
943 88 02 43 - 943 88 01 33



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak



Ertaroko IX. peria maiatzaren 8 eta 9an

Arkume eguna eta artzain egunekin urteko peri bereziei hasiera eman ondoren Erdi Arokoari dagokio oraingoan txanda. Asteburu honetan bertan ospatuko dira eta bederatzigarren edizio honetan herri guneak antzinako itxura hartuko du. Enparantza Nagusia izango da gune nagusia eta bertan egongo dira saltoki gehienak. Baina inguruko kaleetan ere izango da zer ikusi eta entzuna.

Garai bateko lan-moduak erakutsiko dizkigute batzuek, elikagaiak beste batzuek, kantu, jolasak, erakustaldiak... denetik izango da bi egun hauetan. Elikagai saltokiak (Idiazabal Gazta, Erronkariko gazta, ahate produktuak, ezti...), artisautza saltokiak buztinlariak, oinetakogileak, egur-tailagileak...), kale alaitasuna (antzerki-saio, malabareak, ipuin kontalariak...), dekorazioa (zutoihalak, apaingarriak, ateak...) eta beste zenbait ekintza (argazki rallya, arkulariak, zapelatzak, kantuak, dantzak...) izango dira peri berezi honen euska-

rriak.

Garai batean Ordiziak zitu-
tuen 4 sarrera nagusietatik bi ipiniko dira, Gaztelakoa (Kale Nagusira sartzeko Urdaneta Kaletik) eta Frantziakoa (beste muturrean, Barrena eta Jakes etxeen artean) hain zuzen. Bi egunotan izango da zer ikusia. Jarraian egitaraua:

Maiatzak 8, larunbata:

11:00etan: azokako segizioaren desfilea, pregoia, tailerrak eta saltokien irekiera.

12:00etan: ehiza-hegaztien erakusketa eta arku-tiraketak.

13:00ean: zaldi ferraketa.

17:00etan: azokako segizioaren desfilea, tailerrak eta saltokien irekiera.

18:30ean: zaldi ferraketa.

18:30etik aurrera: Beti Argi banda, Laguntasuna Errondaila, Musika Eskolako Haur Banda eta Larrun-Arri Abesbatza taldeen saioak.

21:00etan: bide ipuinak eta Euskal Herriko elezaharrak.

Maiatzak 9, igandea:

11:30ean: azokako segizioa-

Kantu ikastaroa

'Lagunekin kantari' ekimena martxan da jada Hitzaro Euskara Elkartearen eskutik. Euskal kantuen ikastaroarekin eman zitzaion hasiera asteazkenean ekimenari eta esan 26 lagun hor arituko direla uztaila bitartean betiko kankak lantzen. Itziar Zamora izango dute irakasle eta kantatzeaz gain kantuak irakurri eta ulertzea ere izango da helburua.

Behin kantuak ikasita 'Kantu Jira' egingo da uztailan herriko kaleetan barna eta iraileko euskal festetan kantu afariarekin emango zaio amaiera ekimenari.

KZ-gunea

Maiatzean zehar goizez izango da zabalik Domingo Unenue Plazan dagoen Kz-gunea, 9:00etatik 13:00era. 3 ikastaro ere emango dira, 3tik 14ra bata, 9:00etatik 11:00etara (20 ordukoa), 17tik 28ra beste bat, 11:00etatik 13:00etara (20 ordukoa) eta maiatzaren 25etik 31ra hirugarrena, 9:00etatik 11:00etara (10 ordukoa).

San Fermin zozketa

Maiatzean sartzarekin batera martxan jarri da berriro ere San Fermin zozketa. Txindoki Tabernak hartu du aurten ere bere gain antolaketa eta oraingoan ere diru bilketan errekorra lortzea dute helburu. Jakin San Jose Zahar Etxea diruz laguntzea duela helburu orain 80 urte inguru sortutako San Fermin zozketa honek.

Pezeta erabili daiteke

Ordizian Merkatarik Elkartearen ekimenez pezetak bizia hartuko du berriro ere maiatzean zehar. Izan ere jende askok omen du oraindik etxean txanpon "zahar" hori eta Donostiaraino joan behar denez aldatzera askok ez du aukera hori baliatzen. Honela, beraz, pezetaren bat baduzu orain duzu aukera eta Ordizian Merkatarik Elkarteko 100 denda inguruetan egin erosketak pezetarekin.

Goierrri Lanbide Eskolak Zilarrezko 'Q'a

Goierrri Lanbide Eskolak lortu du oraingoan kalitatezko sari hori. Azken urteotan eskolak egindako lanaren errekonozimendua besterik ez da aipatu zilarrezko 'Q'a eman izana.

Argazki rallya

Ertaroko Periare barruan izango da berrikuntzarik aurtengoa. Izan ere, igandean Ertaroko Periko I. Argazki Rallya jokatuko da Ortzadar Argazki Elkartek antolatuta. Hainbat gai jorratu beharko dituzte parte hartzaileek eta argazkiak diapositibetan aurkeztu maiatzaren 21a baino lehen. Izen-ematea igandean bertan, maiatzaren 9an, izango da goizeko 9,30etatik 10,30era bitartean Barrenan.

ren desfilea (juglareen kalejira, zaldunak, Errege segizioa eta partehartzaileak), ehiza-hegaztien erakusketa, tailerrak eta saltokien irekiera.

12:15ean: zaldi ferraketa eta arku-tiraketak.

17:00etan: saltoki eta tailerren irekiera.

17:30ean: azokako segizioaren desfilea.

18:30ean: zaldi ferraketa.

Aitor Calvillo

Makilari aldizkariaren ale berria kalean

Aste Santuan banatu zen etxeetara Makilari herriko aldizkariaren azken alea, 15.a jada. Berrogeita zortzi orrialdeko bilduma mardula osatu da urtean behin argitaratzen den lanean. Herrian barrena jasotako hamaika gai, historikoak nahiz gaur egungoak, biltzen ditu kazetak, argazki ugaziz jantzita.

1992ko abuztuan ikusi zuen argia lehendabiziko aldiz herri aldizkariak. Nahiz hasieran urteko pare bat zenbaki atera, aspaldian urtekari bilakatuta dago Makilari. Lanbide, ikasketa edota adin guztietako herritarrek hartzen dute parte, borondatez eta euskara hutsean.

Garai bateko bainuetxeari buruzko erreportaia, iazko eguraldiaren datuak, Agerretxemendiko Eujenio Murua zenaren inguruko oroimenak,



Kzgunearen bilakaera eta herriko industriaren izaera jorratu dira oraingo lanean, besteak beste. Eskolari ere tarte berezia eskaini zaio. Herri txiki biziaren taupaden erakusgarri den aldizkaria eskuratu nahi duenak udaletxean galde beza.

Argazki lehiaketa

Apirilaren 25ean banatu ziren 'Gabiria' gaitzat zuen argazki lehiaketaren sariak. Amelia Jauregik aurkeztutako lana izan zen epaileen aburuz gaian hobekien txertatzen zena, eta lehenengo saria berak eskuratu zuen. Bigarrena, berriz, Pake Galdosek. Argazkien kalitatea banaka neurtu beharrean sortaren osotasunari erreparatu zaio, gehienez sei erretratu aurkez baitzitezkeen. Gaia ere datorren ekitaldirako zehatzagoa finkatuko dela erabaki dute, lehiaketa biziberritzeko asmoz.

Kzguneko ordutegia

Tutoreak honako egun hauetan egingo du bisita interneteko nabigazio gelara: maiatzean 13 eta 27an arratsalde, 16etatik 20etara. Edozein informazio jaso edo zalandza argitu nahi izanez gero antolatzen dira mintegi hauek.

San Isidro eguna

Urteroko legeari hutsik egin gabe datorren maiatzaren 15ean, larunbata, herriko baserritarrek euren zaindariaren eguna ospatuko dute, San Isidro. Eguerdiko mezaren ondoren lagun arteko bazkariak hartuko du txanda.

Amabirjina Donostian

Gipuzkoako andamariren beste 39 irudirekin batera Gabiria-ko eliza nagusiko eskultura ere Donostian dago azken egunetan. Gotzaitegiak antolatu du amabirjina irudikatzen duten artelanen bilduma, eta guztiak elkartu dituzte erakusketa batean, tartean intxaur zurez egindako eliz-atarikoa.

Osinalde sariko errifa

Apirilaren 17ko bertso saioan atera ziren errifako zenbaki sarituak; lehenengo saria 575 zenbakidunarentzat, bigarrena 436 duenarentzat.

Aimar Maiz

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

José Ramón Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Zegama-Aizkorri mendi maratoia

Maiatzaren 23an jokatu den Mendi Maratoian parte hartu nahi duten korrikalarien multzoa ikaragarri igo da aurtengoan. Munduko txapelketan sartua egoteak edota Euskal Herriko txapelketa izatea edota besterik gabe kirol mota honetan aritzen den gero eta jende gehiago egoteak aurreikusitako marka guztiak gainditu ditu. Izenematea, maiatzaren 7an bukatzen bazen ere, esan, lehen bi egunetan antolakuntzak aurreikusitako 300 plazak bete egin zirela eta 480 bat korrikalarik agertu dutela beren asmoa eta gogoa frogatu egiteko.

Beraz, antolakuntzak sailkapen bat egin behar izan du, 300eko kopurua gainditu eta gero deitutako korrikalarien artean eta batez ere, aurreko urteetan Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian parte hartu zuten ikusi ondoren, sailkapenean oinarritu behar izan du aukeraketa egiterakoan.

Ostatuan 10 logela martxan

Martxoan ireki zen Zegama-

ko Ostata berrirako jendaurrera eta esan jatetxe eta tabernaz gain, logela ikusgarriak martxan jarri dituela Zegamara gaua pasatzera datorrenarentzat. Logela bakoitza komuna eta dutxaz hornitua dago eta baita telefono eta telebistaz ere. Harremanetarako telefonoa 943 801051 da.

Errepide konponketa

Udalak Zegamako Benta baserri ondoan errepideak izandako hondoratzea gertatu bezain laister, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuari idatziz jakinarazi zion errepidearen egoera larria eta berehala konpontzeko eskatu zion. Hasi batean, Aldundiak Udaleri obrak berehala egingo zirela jakinarazi bazion ere, lanen aurrekontua hasieran uste zen baino handiagoa zela kontutan izanik, kontrataziarako jarraitu beharreko prozedura administratibo konplexuak atzeratu egin du bere exekuzioa.

2004ko apirilaren 20an,

Tartalo elkartearen XI. urteurrena

Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak, maiatzaren 15ean herritar guztientzat zabaldua, bertso bazkaria antolatu du elkartearen XI. Urteurrena ospatzeko.

Eguna, hamaiketako batekin hasiko da, ondoren triki-potea bazkari aurreko giroa alaitzeko. Bapo bazkaldu, bertso eder batzuk entzun eta gero, herri-kirolak izango dira ikusgai. Bazkari ondorengo bertsoetarako, Iker Zubeldia, Iban Urdangarin, Beñat Lizaso eta egungo Osinalde Sariko irabazlea den Ohiana Baltra izango dira gure artean.

Oharra: bertso-bazkarirako txartelak, Haizea, Ostatu, Manolo eta Txanton tabernetan egongo dira salgai 18 euroren truke maiatzaren 13ra arte.

Sant Sadurni D'Anoiako abesbatza

Aurten 15 urte betetzen dira lehenengo elkartrukea egin zenetik Zegama eta Sant Sadurni D'Anoiako abesbatzen artean, eta hori aitzakia hartuz Orkatz Abesbatzak gonbidatuta ekainaren 4tik 6 ra bitartean -Zegaman izango ditugu, musika gizakien arteko harremana sendotzeko bitarteko egokia dela sinetsirik.

Ekainaren 5ean izango da emanaldi garrantzitsua, bertan Orkatz Abesbatza egun osatzen dutenek eta Sant Sadurni D'Anoiako abesbatza egun osatzen dutenek, abeslagun izango baitituzte duela 15 urteko elkartrukean parte hartu zuten eta abestera animatu diren abeskide ohiak.

Ekainaren 5eko kontzertu hori begira, maiatzeko entsaioetan parte hartzeko gonbidapena luzatzen die abestera animatzen diren abeskide ohiari lerro hauen bidez asteazken eta ostiralean 9:00etatik 10:30ak bitartean.

Etxeetan hartzeko prest dagoen jendea

Lolekua arazo gerta ez dadin, Orkatz Abesbatzak bere kide izandakoei eta zegamarrei orokorrean deialdi bat luzatu nahi die Sant Sadurni lagunak beren etxeetan har ditzaten. Izan ere egun Orkatz osatzen dutenentzat jende kopuru haundiegia baita. Honetarako Orkatz Abesbatzako edozein kiderekin egotea nahikoa da eta prestutasuna agertzea.

Urriari Sant Sadurni d'Anoiara

Ekitaldi honen bigarren atala urriko bigarren asteburuan izango da bertan egingo den 'Cavaren Astea' parte hartuz bi abesbatzek. Hori dela eta Catalunyar joateko gonbidapena dute Orkatz abesbatzako kide ohiak, betiere Orkatz Abesbatzak egingo dituen entsaioetan lagun izaten direnek eta borondate hori agertzen dutenek.

Hil honetan zehaztasun gehiago emango dituztela agindu digute Orkatz Abesbatzatik, baina bitartean ekitaldi honek merezi duen dizdira izan dezan laguntza eskatu dute bertatik.

Eduardo Albizu

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Benta ondoan errepideak izandako hondoratzea konpontzeko proiektu teknikoa onartzea. Honenbestez, obren kontratazioa lehiaketa publikora ateratzea erabaki zuen, 126.696,17 euro edo 21.080.469 pezetako lizitazio oinarriekin.

Lanak adjudikatu ondoren bi hilabeteko epea izango du adjudikazio-hartzaileak lanak bukatzeko.

Arantzazurako peregrinazioa

Arantzazuko peregrinazioa aurten maiatzaren 30 eta 31n burutuko da Zegaman eta da-

goeneko prestaketa lanak hasita ditu Udalak. Ospakizun horiei buruz xehetasunak emango dira berehala Udaletxetik bidalitako triptikoan baina aurreratuz, esan daiteke, autobusetarako izenemateak, eta maiatzaren 31n Udal portikupean afaldu ahal izateko izenemateak maiatzaren 17tik 26ra egin behar direla.

Juanito Oiarzabalen ikusentzunezkoa

'Everest oxigenorik gabe' Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiari loturik, datorren maiatzaren 19an, Juanito Oiarzabalek ikusentzunezkoa eskainiko du Olarango Jubilatuen Zentroan, 19:30ean.

Gaztaren museoa egiteko urratsak

Herrian gaztari buruzko museoa edo interpretazioa zentrotua egiteko lehen urratsak ematen ari dira Idiazabalgo Udala eta Goitur Eusko Jaurilaritzaren babesarekin. Apirileko plenoan Udalak enpresa bati museoari buruzko proiektua aztertze eskatzea erabaki zuen. Uda ondoren jakingo dira azterketaren emaitzak. Hortik aurrera, proiektua garatzeko moduan izango da. Museo berriko asmoa apirilaren 30ean jakinarazi zuten Antton Irizar alkateak, Niko Osinalde Goiturreko arduradunak eta Mercedes Rodriguez Eusko Jaurilaritzako Turismo zuzendariak. Idiazabalen turismoa erakartzeko egindakoaren eta egin behar denaren inguruko hitzaldia eskaini zuten Gazta egunaren ekitaldien baitan.

Niko Osinalde Goiturreko arduradunaren esanetan Idiazabalgo museoak, *"zerbait ezberdina eskaini beharko du. Gaztaren inguruan antolatuta dauden antzeko egituretatik ezberdina izan beharko du Idiazabalgoak. Beste ikuspuntu bat eskaintzea ezinbestekoa izango da"*. Horretarako, Idiazabalek tu-

rismoa lantzeko dituen alde onak eta txarrak hartu behar dira kontuan. Hobetu beharrekoen artean: tradizio turistikorik eza eta azpiegitura falta azpimarratu zituen Goiturreko arduradunak. Idiazabalen nekazalturismoren bat edo hotelen bat egiteko premia dagoela gehitu zuen Osinaldek. Herriak aldeko dituen faktoreetan, kokapen ona (Idiazabal Euskal Herriko bost aireportuetatik ordubete edo ordu eta erdira dago), paisaia eta Idiazabalek duen errekurtsorik garrantzitsuenaz azpimarratu zuen Osinaldek: gazta.

Mercedes Rodriguez, Jaurilaritzako turismo zuzendariak esan zuen gaztak Idiazabalen izena mundu guztira zabaldu duela. Horrek, turismoa erakartzeko duen garrantzia azpimarratu zuen. Era berean, Idiazabalen Artzai Gaztak duen egoitza berria kanpoko jendea erakartzeko beste tresna bat dela gehitu zuen. Rodriguezen esanetan, *"egoitza berria gaztaren eskaparate bat da, eta hala erabili beharko litza-teke"*.

Xabier Urteaga

IGA-k 5 urte

Idiazabalgo Gazte Asnbladak bosgarren urteurrena ospatzeko egitaraua antolatu du:

Maiatzak 7: 18:30ean AHTari buruzko hitzaldia. **Maiatzak 8:** 11:00etan Eskalada ikastaroa (oinarriko teoria Gaztetxean). 17:00etan Gazte Asanbladen arteko topaketa. 20:30ean Kafe tertulia 5 urteeak errepasatuz. **Maiatzak 9:** 16:00etan Eskala ikastaroa. 19:00etan Kotxe karabana. **Maiatzak 14:** 17:30ean Futbolin txapelketa. 23:00etan Bartolo eta Kitto! Ren kontzertua. **Maiatzak 15:** 12:00etan Bazkalaurreko poteoa. 14:00etan Bazkaria gaztetxean. 17:00etan Altxorren bila. 19:00etan Antzerkia. Ondoren, Txistu Poteo 'Dorotea'. 21:00etan Mozorro Afaria. Gaia: Benta Txiki.



Gazta Eguna: herria gainezka

Jendetsua, batzuren ustez orain arteko jendetsuena, izan zen Gazta Egunaren zazpigarren edizioa. Errekako obrak tarteko, jai guneak itxura berria izan du aurtan.

Plazan 23 artzainen postuak egon ziren. 22 Artzai Gazta elkartekoak, Idiazabal gazta egiten dutenak. Horiekin batera Kantabriako 'Quesucos de Liébena' jatorri izena ordezkatzeko artzain bat. Guztira 400 kilo gazta banatu zituzten doan herritarren eta kanpotarren artean. Idiazabal gazta egiten duten artzainen gazta dastatu ondoren (zein nork egindakoa zen jakin gabe) jendeak gaztarik onena Idiazabalgo Juanita Irastorzak, Goiburu izenpean, aurkeztutako gazta zela erabaki zuen. Bigarren onena Ordiziako Arramendi elkarteara eta hirugarrena Idiazabalgo Aranburu anaia. Plazan jarritako posturik dotoreenaren saria Aranburu anaiek jaso zuten eta bigarrena Segurara joan zen Karmele Murua eta Felix Goibururentzat.

Aurtengo nobedadeak, gazta ketzeko txabolak, jendearen arreta erakarri zuen. Omenaldia Ondramuño baserriko Antonio Imazek eta haren emazteak Angela Insaustik jaso zuten. Antoniori artzantzan egindako lana eskertu zitzaion herriak egindako omenaldiaren bidez.

Labur labur

- **Jubilatuak Elkarteak** maiatzaren 8an (larunbata) egingo du urteko batzarra. 20.15ean hasiko da Pila Eneako egoitzan.
- **Herritarren Zerrenda** ekimena, Europako Hauteskundeetan hautagaitza aurkeztu ahal izateko sinadura bilketa egiten ari da. Udaletxean sinatu daiteke agiria, goizetan eta arratsaldetan.
- **Udalak UEUn** (Udako Euskal Unibertsitatean) izena ematen duten herritarrei ikastaroen %75 ordainduko die.
- **Igerilekuko arduradunak** kontratazeko deialdia egin du Udalak, izena maiatzaren 18rako eman behar da.
- **Kasongo Lunda ONG-ak** hileko lehenengo ostegunetan egingo du bilera, arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean. Talde horretan parte hartu nahi dutenek bertara jo besterik ez dute.
- **Agenda 21** ekimena garatzeko bidean Goieki inkesta bat egiten ari da Goierrin barrena. Idiazabalen 10 laguni egingo zaie galdeketa. Datakey izeneko enpresa ari da lan horretan.



Jaunartzeak

Maiatzaren 16ko 12:00etako mezatan, ondorengo neska-mutikoek egingo dute jaunartzea: Libe Orrigain, Janire Mantecon, Xanet Imaz, Aitor Imaz, Aimar Intxausti, Iñaki Elorza, Iñigo Urbizu, Iñigo Garmendia, Miren Iñurrategi eta Jon Gisasolak.

Haur abesbatza. Meza honetan, herriko koruaz gain, haur abesbatzak bi kantu abestuko ditu, Julen Telleriaren gidaritzapean.

Bolan, binakako txapeldun

Maiatzaren 2an, Lasarteko 2. eta azken saioaren ondoren, Xepeiño eta Imanol Agirre aita-semeak binakako bola txapelketaren irabazle geratu ziren, 184 birla jota. Lehen saioa, apirilaren 25ean jokatu zen Idiazabalen eta Antonio Agirre eta Jexux M. Intxausti geratu ziren lehenak. Hauek, amaierako sailkapenean 4. geratu dira, 177 birla jota.

Finala

Asteburuko emaitzak: Errejonak: Segura 2-2 Eibartarrak. **Jubenilak:** Amara Berri 4-5 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 1-5 Santo Tomas.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Intxurre, zapatuan, 11:00etan. **Jubenilak:** Segura-Idiazabal, zapatuan, 16:00etan.

Labur-labur

● **Koruaren entsaioak.** Aste Santutik astero ari dira entsaiatzen San Juanetako emandirako. Astearteetan, 19:30ean, kultur etxean.

● **Santa kruzetako kirol emaitzak.** XXX. Santa kruz proba, Sumofic taldeko Unai Aranzabal bergararrak irabazi zuen. Herri token, emaku-

1958ko Lambretta zaharberritu

Detaile guzti-guztiak zaindu ditu Urtzi Intxasutik

Axkuetaerdin, Zegaman eta Lazkaomendin aspalditik geldirik zeuden hiru Lambretta erosi eta Malagan dagoen enpresa italiarraren etxe ofizialetik inguratutako jatorrizko ordezk piezekin, xehetasun guzti-guztiak zainduz, Lambretta LD 125a zaharberritu du Urtzi Intxaustik.



dun eserlekuak, refilak, topeak eta railak, kanbioko kableak, fundak, manetak, in-tsigniak, pilota eta abar, Lambretta etxe-ak Malagan duen delegarizatutik ekarri ditu. Pintaketa, berri- z, jatorrizko oliba eta gris koloreetan, leku berezitan burutu du. Era honetan, gastuak, uste baino gehiago handitu zaizkio.

Aitonaren oroimena

Bere aitonak, Madalena haundiko Gillermo Intxaustik, marka bereko motorra bazuela entzunda (SS-18013), aspalditik zebilen buruan Urtzik orain gauzatu duen asmoa. Berriztatutako motorrak, SS-27121, hiru Lambrettako baten matrikula du. Dokumentazioa, garaiko-ak bezala, ixpiluari lotutako

tubotxo barruan darama. Azken zerga, 1968an ordaindu-takoa du.

Jatorrizko piezak

Urtzi, pasa den azaroan hasi zen lan honetan. Bere etxeko garajea 100 ordu baino gehiago eman ditu hiru motorren piezak askatu, garbitu, lijatu, leundu, pintatu eta montatzen. Bertsio italiarreko jatorrizko piezak, muelle-

San Ixidroren kaleratu

Berritutako motorra, baserritarren egunean kaleratzea ere aspalditik zuen epetzat jarria. Okotzean lotzen den antea-judun kaskoa jarrita, maiatzaren 15ean aterako da Urtzi paseoa, gauzatu duen 'artistakeria' erakutsiz. Aurrera begira, 40ren bat urteko bost vespekin bakarria berriztatze-ko asmoa du.

San Ixidro eguna

Maiatzaren 15ean, urteroko moduan, baserritarren eguna ospatuko da. Arratsaldean, pelota eta pala partidua jokatu dira. Iluntzean San Ixidro eguneko meza emango da. Ondoren, ardo partiketa, herri afaria eta afalondoa alaitzeko musika izango dira.

● **Afizionatuen partidua.** Arratsaldeko 5,30etan, Arretxe eta Bengoetxeak, Lasa eta Argoterren kontra jokatu dute.

● **Finala.** Pelotaren ondoren, San Ixidro pala txapelketaren finala jokatu da. Finalistak asteburu honetan ezagutuko dira.

● **Joxeba Auzmendi oroigarria.** Udalak, bikotekako erre-monte txapelketa irabazi berri duen herritarrari plaka bat eman-go dio afal garaian. **Norgehiagoko txapelketan.** Bi bikotek eta bi hirukotek osatzen duten txapelketako lehen edizioan ari da parte hartzen Joxeba, Ezkurra bikote duela.

● **Ingeniari teknikoa kontratatu.** Udalak, Amaia Gorospe zegamarra lau hilabete-rako kontratatu du, azken urteetan baserri eta dendei zu-zendu zaizkien ekintzak ber-rindartzeko.

● **Herri Urrats.** Elorri K.E.-ak autobusa antolatu du maia-

tzaren 9rako. Izen ematea Elorripen (6 euro). Irteera, goizeko 8,30etan plazan.

● **Jubilatuaren eskurtsioa.** Maiatzaren 25ean Sarara. Izen ematea maiatzaren 17 eta 18an, Atsedenen.

Joseba Telleria



Sarako umeak Ataunen

Ataunen eta Sararen arteko uztarketa nahiak ez dira gaur goizekoak. Joxemiel Barandiaranen figura bi herrien arteko loturak sendotzeko zubi eta sustrai ezinbestekoa gertatu da. Kontuan izan behar da Joxemiel Barandiaran 1940tik 1953ra Saran bizi izan zela eta behin baino gehiagotan agertu zuen bezala, saratarrak bihotz barnean zeramatzala.

Horregatik azken urteetan bi herrien arteko anaitasunaren borondatea bizirik egon da. Hori horrela izanik, bi udaletako alkate eta zinegotzien arteko joan etorriak behin baino gehiagotan aurrea eramane dira. Horrekin batera azken urteetan bi herrietako elkarte ezberdinen arteko harremana ere sendotuz joan da.

Bi herrietako eskola ezberdinetako lehen urratsa, aurreko ostiralean, hilak 30, eman zen. Egun horretan Sarako hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 88 ikasle

(ikastola, eskola publiko eta eskola pribatukoak) Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxera etorri ziren egun pasa. Ataungo eta Sarako neska-mutilak elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera izan zutelarik. Goizaldean herribidetik abiatuz, Sara etxea ezagutu zuten. Gero, San Gregoriotik buelta eman ostean, denak elkarrekin eskolan bazkaldu zuten.

Ekainean, Ataungo ikasleek Sarara joateko asmoa dute egun pasa hauek ere, oraindik eguna zehazteko badago ere.

Bestalde urtean zehar herri bakoitzean dauden kultur ekintzak aprobetxatuaz (musika eskola, dantza taldea, abesbatza, kirola...) elkarri erakustarazi nahi diete. Hori dela eta urri aldera, ataundarrak Saran izango dira eta abenduan alderantziz, berriro ere saratarren bisita izango genuke. Egunak gerturatzen doazen heinean, data zehazten berri izango dugu.

Doltza Barandiran

San Isidro eguna

Maiatzaren 15a, San Isidro eguna ospatzen dela eta, ohiturari jarraituz, Ataungo Udalak barazki lehiaketa eta gazta erakusketa antolatu ditu. Aurten egun hau, San Gregorion ospatuko da.

Barazki lehiaketan, presentzia, kopurua eta kalitatea baloratu dira batez ere. Parte hartzeari buruz esan, herriko edonork parte har dezakeela, norbere eta herriko lurretan haziak diren barazkiak aurkeztu behar dira, bakoitzak jarritako postua erabili ahal izango du eta bost barazki mota, gutxienez, aurkeztu beharko dira. Sariak: 1.goak 72 euro eskuratuko ditu, 2.a 60 euro, 3.a 48 euro, 4.a 36 euro, 5.a 24 euro eta 6.postuan gertzen denak 12 euro poltsikoratuko ditu. Gazta lehiaketan ere herriko edozeinek parte har dezake.

Beraz, deialdia herritar guztiei luzatzen zaie, baserritar, artzain, nahiz baratza duen edonori. Interesa duzuenok, maiatzaren 13a baino lehen, Udaletxean esan.

Herriarteko pilota txapelketa

Jadanik aurtengo Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketa martxan da. Maiatzaren 2an hasiko da eta ekainaren 27an Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatu diren finalekin emanango zaio amaiera.

Finalera iritsi arte norgehiagokako partidak joan-etorrian jokatu dira; finala adiz, partida bakarrera izango da. Aurten parte hartzen duten 20 herriren artean Goierriko hiru izango dira parte hartzaile, tartean gure herrian, Ataun, Beasain eta Lazkaoekin batera.

Astebukaera honetan ekingo diote txapelketari gure ordezkariak. Larunbat arratsaldeko 5,30etan Beasainen kontra jokatu dute Auzoeta kiroldegian. Hurrengo larunbatean berriro ere nor baino arituko dira bi talde hauek, oraingoan ordea, Beasainen jokatu beharko dute.

GHauk izango dira Ataungo pilotariak: Kadete mailan: Xabier Altuna, Jon Ander Albisu eta Jon Arratibel. Jubeniletan: Iraitx Goikoetxea eta Asier Gonzalez. Senior mailan: Jon Dorronsoro, Eñaut Sukia eta Rafael Zubizarreta.

Hauteskunde zerrenda

2004ko martxoaren 1eko erreferentzia duen Hauteskunde Zerrenda udaletxean dago ikusgai. Norbere izena zerrendan aurkituko ez balitz, Udalaren aurrean eskabidea egin edota erreklamazioa aurkeztu daiteke. Horretarako epea, 2004ko apirilaren 26tik maiatzaren 3a bitartean dago irekita.

Herritarren zerrenda

Ekainaren 13an izango diren Europako hauteskundeei begira, Herritarren Zerrenda (HZ) osatzeko firma bilketa erraldoia antolatu da Euskal Herri osoan. Estatu espainiarreko legeriak herri hautagaitza osatzeko milaka firma legal eskuratzea eskatzen duela kontuan hartuta, horixe egingo dute maiatzaren 8ra bitartean. Ataunen firma bilketa Udaletxean egingo da, honako ordutegiarekin: Maiatzaren 3tik 7ra: eguerdiko 12etatik 2,30etara. Maiatzak 6 osteguna: arratsaldeko 4.30etatik 8etara. Maiatzak 8 larunbata: goizeko 9etatik 1era

Musika kalera

Musika Eskolakoek antolatutako ekitaldiak

Ikasturte-amaiera iristear da-
goen honetan, Musika Esko-
lak, musikaren inguruan
ekintzak antolatu ditu musi-
karekin gozatu nahi duten
guztientzat.

Maiatzaren 7an, ikasleen
eskutik, musika-emanaldia
izango dugu Beasaingo kale-
etan zehar. Pieza klasikoekin,
pop abestiekin, rock abestie-
kin, pieza herrikoiekin eta
irratiko abesti ezagunen inter-
pretazioekin alaituko dituzte
kaleak.

Maiatzaren 15ean, irakas-
leek helduko diote erronkari,
prestatu dituzten lanak, Loi-
nazko San Martin plazapean
kontzertu batean eskaintzeko,
herriko hainbat taldeen esku-
tik abesturik. Irakasleen abes-
tien txostena plazan bertan
emango dute eta beraiek ins-
trumentuekin interpretatzen
dituzten bitartean herritarrek
abestuko dituzte abestiak.

Nekane Altun

Aurtzaka dantza taldea 25. urteurrena ospatzen

Aurtzaka dantza taldeak, izen honekin, 25 urte beteko ditu 2004.
urte honetan. Zilarrezko ezteiak ospatzeko, hainbat eta hainbat
ospakizun antolatu dituzte urte osorako. Maiatzean ekitaldi uga-
ri izango dituzte. 3. orrian duzue, Alardearen eta argazki erakus-
ketaren informazio zehatza.

UEUrako diru laguntzak

Udaleko Euskara-batzordeak, 2004ko udan XXXII. UEUren
edizioan izango diren ikastaroetarako nahiz orokorki Unibertsita-
te-mailako euskarazko ikastaroetarako, diru-laguntzak eskain-
tzen ditu ikasle euskaldun beasaindarrentzat. Ikasleek ondoren-
go baldintzak bete behar dituzte: 1.- Beasainen erroldatuta ego-
tea. 2.- Batxilergoko 2. ikasturtea edo LH 2 eginda izatea edo
Unibertsitateko Maila Ertain edo Goi-mailako ikastaroetara gai
bereziak lantzerako joatea (ikasketak egiten ari direnek matrikula-
ren kopia ekarri behar dute). 3.- Eskerak 2004ko uztailaren
12ra bitartean egin behar dira. 4.- Irabazpideko diru-sarrerak di-
tuztenek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Eskerak egitean, honako agiri hauek ekarri behar dira: 1.-
UEUko ikastarorako egindako matrikularen fotokopia. 2.- NA-
ren fotokopia. 3.- Diruetxeren bateko kontuaren zenbakia. 4.-
Udaletxean emango den eskaera-orria beteta. 5.- Egiten ari den
ikasketen matrikularen fotokopia.

Baldintzak betez gero, laguntzak, kostuaren 2/3koak izango
dira. Eskerak, udaletxeko Harrera-bulegoan edota Euskara-zer-
bitzuan entregatu behar dira. Informazio gehiago telefono hone-
tan: 943 028063; posta elektronikoa: euskera@beasain.net



Gipuzkoako herriarteko pelota txapelketako herriko taldea

Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketa martxan da jada eta
Beasainen izenean, hiru mailatan, ondorengo pelotariak ari di-
ra: Kadeteetan: Ibon Iraola, Oier Azketa, Jokin Arratibel eta
Egoitz Mendia. Jubeniletan: Arkaitz Goikoetxea eta Jon Ander
Esnaola, eta seniorretan: Unai Amundarain, Julen Mujika eta
Koldo Agirre.

Ataunen aurka jokatuko dute lehenengo partidua, Zumarra-
gako taldeak, azken unean, txapelketara ez aurkeztea erabaki
ondoren. Lehenengo partidua maiatzaren 8an jokatuko da
Ataunen eta itzulerakoa, Beasainen.

II. Aizkorri Bira, maiatzaren 9an

Iraupen luzeko II. Aizkorriko Bira mendi ibilaldia maiatzaren
9an egingo da Beasaingo Aizkorri Mendizale Elkartek antola-
tuta. Goizeko 6etan abiatuko dira lehenengo parte hartzaileak
eta 50 kilometrotik gora burutu beharko dituzte berriz ere irte-
ra puntura itzuli aurretik. Beasaindik irten eta Aizkorri joan-
etorria, 12 bat orduko iraupena izango du. Izen emateak, inter-
net bidez, www.mendikoweb.com helbidera sartu eta mendi-
martxaren atalean sartuz; e-mail bidez, [aitzgorri2004@jazz-
free.com](mailto:aitzgorri2004@jazz-free.com) helbidera idatziz eta elkartera hurbilduaz. Kasu guz-
tietan, aldeztu aurretik Euskadiko Kutxan 15 euroko diru sarrera
egin behar da. Egunean bertan ere izen emateko modua izango
da 5,30ak aurretik.

III. Garagardo Festa

Maiatzaren 6tik 9ra garagardo-mota desberdinak dastatzeko
aukera izango da Beasainen. B.K.L. Kirol Taldekoek antolatu
dute III. Gargardo festa hau, Heineken, Beasaingo Udala eta
Udal Kirol Erakundearen laguntzarekin. Gainera, hainbat kon-
zertu eta entzuteko emanaldi antolatu ditu Garagardo Festako
egunak girotzeko. Ekitaldia Gipuzkoa plazan egingo da,
18:00etatik 24:00etara.

Maiatzaren 6an, 'Kolpez-kolpe' txalapartariak emango
diote hasiera 18:00etan. **Maiatzaren 7an**, 21:00etan, Koldo
Trikitixa eskolako ikasleen eskutik trikitixa entzuteko aukera
izango da. **Maiatzaren 8an**, 19:00etan, Batucada Bulamboren
eskutik herriko kaleetan zehar. 22:00etan, 'Doctor Blues
Band'-en eskutik rock kontzertua. **Maiatzaren 9an**, 20:00etan,
Iraola & Pagadi umorista eta imitatzaileek emanaldia eskaini-
ko dute.

Herriko festak ate joka

Maiatzaren 19an, asteazkenean, hasiko dira Legorretako festak. Hona hemen prestatu den egitaraua:

Asteazkena 19:

19:15ean: Jaiei hasera eman-go dien suziriaren jaurtiketa. Ondoren, Gizon Pikua Udaletxeko balkoian jarriko da eta bertan egongo da Jaiak amaitu bitarte. Jarraian puxikak, gozokiak, litxarkeriak eta abar banatuko dira.

19:30ean: Buruhandiak eta Kalejira Legorretako Musika Eskolako ikasleekin.

21:00etan: Lagunarteko afaria Bilkoin K.K.E.-n. Afari honetan 15 urtetik gorako edonork har dezake parte. Afarira joateko sarrerak Udaletxean eta herriko zenbait tarteretan salgai egongo dira.

Ondoren eta goizaldera arte, Dantza Saioa 'Iraunkorrek' txarangarekin.

Osteguna 20, Azintzio eguna:

10:00etan: Diana Legorretako Musika Eskolako Ikasleekin.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Legorretako Musika Eskolako Haurren Kontzertua Herri Zinemaren.

13:00etan: Buruhandiak Solano Musika Eskolako Ikasleek lagunduak.

18:00etan: Azintzio eguneko euskal erromeria.

18:00etan: Agintarien Soka Dantza.

Ondoren, Gazte mailako pilota partiduak: Iriarte-Garmendia Gonzalez-Larrate.

19:00etan: Herriko Irrintzi Alai Dantza Taldearen saioa.

Une berean: Sagardo dastaketa eta Txorizo jatea sagardo erara Plazan.

23:00etan: 'Mariatxi Guadalupano' taldearen emanaldia herriko kaleetan zehar.

Ostirala, 21:

10:00etan: Diana Legorretako Musika Eskolako Ikasleekin.

11:00etan: Haur Jolasak Harripila Kiroldegian.

12:30ean: Pote, Igel eta Toka txapelketa herriko jubilatuen artean.

14:30ean: Bilkoin K.K.E.-n herri bazkari elegantea 'Iraunkorrek' txarangak alaitua.

15:00etan: Haur Jolasak Harripila Kiroldegian.

19:00etan: Haurrentzako Play Back saioa.

23:00etan: Helduentzako Play Back-a.

Jarraian, Joxe Mari Orbegozo Beasaingo 'Dantzaki' Dantza Eskolako Ikasleen Saloiko dantza erakustaldia.

Larunbata, 22:

10:00etan: Diana Legorretako Musika Eskolako Ikasleekin.

13:00etan: Egurdiko 1etatik gaueko 12etara, 'Halloween' Mozorro Eguna.

13:00etan: Txakolin dastaketa 'Iraunkorrek' txarangak alaitua.

13:00etan: Herriko XXII. Paella Txapelketa. Ordu bietan amaitzen da prestatzeko epea.

14:30ean: Lagunarteko herri bazkaria plazan txarangak alaitua.

23:30etan: Goizaldeko

Legorretako historiari buruzko liburuaren aurkezpena

Bihar, larunbata, egurdiko 12,30etan, Antxon Aguirre Sorondo historialariak Legorretako herriko historiaren inguruan idatzitako 'Legorreta. Bizitza ibaiaren biragune batean' liburuaren aurkezpena izango da Udaletxeko Batzar Aretoan. Lanaren egile den Antxon Aguirre Sorondoz gain, Xabier Iraola Alkatea eta Patxi Ezkiaga hitzaurre-egilea ere bertan izango dira.

IV. Dantzari Txiki eguna

Igandean, hilak 9, ospatuko da IV. Dantzari Txiki Eguna. Bertaratuko diren Dantza Taldeak, Beasaingo 'Aurtzaka', Zaldibiako 'Iztueta' eta Legorretako 'Irrintzi Alai' izango dira. Goizeko 11,15etan elkartuko dira talde guztiak herriko plazan, eta hamaiketako banatuko da. 12:00etan hasiko den Desfilean bost geldione egingo dira, eta dantza taldeek bina dantza eskaintzeko aukera izango dute geldione bakoitzean. Hau amaitzean, herriko plazan elkartu eta talde guztiek elkarrekin ikurrin dantza zein aureskua dantzatuko dituzte. Ondoren, talde bakoitzak dantza bana eskainiko du oholatza gainean. 14:00etan, berriz, Beasaingo naiz Zaldibiako haurrak Legorretako haurren etxeetara joango dira bazkaltzera, eta arduradun eta txistulariak aldiz, elkarte batetara.

KZ Gunea

Otsailaren 9tik Legorretako Kzgunea zentruak, Eusko Jaurlaritza eta Legorretako Udaletxearen laguntzaz, bere nabigazio eta Internet hezkuntza zerbitzuak eskaintzen ditu, 16 urtetik gorako pertsona ororentzat. Maiatzean zehar Kzgunea zentrua 16:00etatik 20:00etara irekiko da eta bertako instalakuntzak Internet bidez edozein informazio mota bilatu nahi duen pertsona ororen esku egongo dira. Hauek dituzue Maiatzerako antolatutako ikastaroak:

Internet Kzgunea: Interneteko oinarritzko ikastaroa (20 ordu): -3tik 14ra 18:00etatik 20:00etara. -17tik 28ra 16:00etatik 18:00etara. **Nabusiweb:** 45 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroa (10 ordu): -3tik 7ra 16:00etatik 18:00etara. -17tik 21era 18:00etatik 20:00etara.

Helduentzako zinema

Maiatzak 13: 'Termina' laburmetraia eta 'El Camino A Casa' filmea.

Zelai Amenabarro

3:30etara, Dantzaldia 'Trakets' taldearen eskutik.

01:30etan: Mozorro lehiaketaren sari banaketa.

Igandea, 23:

10:00etan: Diana Legorretako Musika Eskolako ikasleekin.

12:00etan: 14:30etara bitarte Kalejira Solano Musika Es-

kolako Ikasleen eskutik.

18:00etan: Kalejira 'Iraunkorrek' txarangarekin.

18:30ean: Herri Kirolak: Sega Apustuak Zaldibiako taldearen eskutik, eta Iñaki eta Inaxio Perurena Harrijasotzaileen erakustaldia.

20:30ean: Gizon Pikuaren ehorzketa eta Herri Jaien amaiera.

Iker Uharte pilota txapelkun Kuban

Iker Uharte pilotaria, 20 urte-ekin, Nafarroako selekzioaren bidez Kuban izan da garaile, Espainia ordezkatzuz.

Nondik nora lazkaotar bat Kuban?

Nafarroan hainbat txapelketa irabazi ostean eta teknifikazio zentru batean aritu ondoren Kuban egiten den olinpiada baterako deitu zidaten Espainia ordezkatzuz.

Hemen txapelketarik ez dago ala?

Bai noski baina 10 urte nituenetik Uharte Arakil-en izan naiz entrenatzen eta bertako lehen pausoak han eman nituen, Nafarroko selekzioan sartu naiz.

Zer motatako olinpiadak egiten dira?

Kirol guztietako modalitateak eramaten dira aurrera 32 hiriburutako jendearekin. Gurekiko pilota izan da eta emaitza onak izan ditugu. Nire kasuan banaka jokatu dut ligaxka batean, bertan, bi kubatar eta mexikar bat nituen.

Alderik ba al da kanpoko pilotariek?

Pilota munduan oso murgilduak daude nahiz eta indar gehien duen modalitatea trinketea izan. Pilota oso gogoko dute eta zaletasun handia dagoenez maila ere handia da.

Zer sentitzen da olinpiada bat irabaztean hemendik kanpo?

Olinpiada bat irabazteak beti ematen du ilusio gehiago duen garrantziagatik, baina beste hainbat txapelketa bezela bizi izan dut.



Eta ereserkia entzutean?

Ezta ezer ere.

Apirilaren 16an joan eta 25ean itzuli zara; nola bizi izan dituzu herriko festak?

Ezin izan dut bertan izan egun guztiei probetsua ater-

Odol emaeleak

Maiatzaren 20an izango dute lazkaotarrek odola emateko aukera. Kultur etxean izango da eta ordua berriaz arratsaldeko 6,30etatik 8etara. Beraz, gonbidapena luzatzen da herritar denei eta bereziki gazte jendeari.

Amalur eta ikastola

Martxoaren 28an izan zuten azken txangoa Gorbeara eta oporraldi batzuen ondoren berriro elkartuko dira, bertako mendiak eta inguruguneak ezagutzeko aukera emanez nahi duten guztiei. Oraingoan maiatzaren 9an izango da Lizarragara. Interesatuak zaudeten guztioi ikastolan galdetzea besterik ez duzue.

Angel Vazquez

Txirrindulari gazte honek berri txar bat jaso zuen txirrindulari federaziotik. Orain denbora bat analisi batzuk egin zizkien lasterketa baten ondorioz eta bertako emaitzak orain gutxi ateratu dira. Analitikan positiboa eman du eta bi urtetarako zigorra ezarri diote inongo lasterketatan parte hartzeko aukera kenduz. Profesional mailara iristeko ateetan geratu da eta garbi dago orain guztia herriak eskertu zuen, horren lekuko festetan jasotako oroigarria, beste batzuen artean.

tzeko eta pena pixkat badut, handik iritsi eta hemen beste partiduak nituen, Urretxun, Iruñan...

Orain zein helburu dituzu aurrera begira?

Ditudan txapelketa guztietan

ahal dudan paperik txukunena egin eta uda parterako Asegarre-ekin kontratu bat dudanez al dudan gehien preparamatu, beti ere mundialeko txapelketa ahaztu gabe noski.

Aitor Tello

Inkesta:

Zer da gehien atsegin duzuna jaietan? Eta gutxien?



Irati, ikaslea

Sortzen den giroa, lehenengo jaiak direnez gogo gehiago izaten dira. Gutxien gustatzen zaidan gauzarik ez dago. Perfektuak dira.



Juan, langilea

San Prudentzio deuna eta gehienbat arratsaldeko herri kirolak. Giro paregabea sortzen da. Gutxien gustatzen zaidanik...dena ere oso ondo.



Santi, tabernaria

Txarangak eta perkusio taldeak jartzen duten giroa. Lazkaotarrek jartzen duten giroa ere azpimarratu inongo iskanbilarik sortu ez dutelako, nirean behintzat.



Aramako historiari buruzko liburua

Arkaitz Arruabarrena bea-saindar historialariak, Aramako Historia aztertzen lan ugari egin ondoren Aramako Historiari buruzko liburua idatzi berri du. Udala liburu hau argitaratze asmotan da eta herritarrei ondorengo eskaria egiten die; bakoitzak bere etxean dituen argazkien artean antzinako argazkiren bat duen bila dezala eta berau udaletxean utzi dezala liburuaren azal bezala erabili ahal izateko. Argazkiak ahalik eta arinen itzultzen saiatuko da Udala.

San Isidro ospakizuna

Toki Alai tabernako Josu Elorzaren eskutik honako ekintzak antolatu dira San Isi-

droren omenez, datorren maiatzaren 15 erako (larunbata).

Arratsaldeko 4,30etan emango zaio hasiera mus saioarekin, parte hartzen duten guztiei kafea eta farias oparituko zaie.

Gaueko 9etan herriko tabernan trikitilariak alaituriko lagunarteko afari-barrikotea izango da; bakailao tortila, bakailao takoak piper betearrekin, txuleta eta gainean gazta, menbrilloa eta intxaurrak.

Afarira etorri nahi duzenok eman izena Toki Alai tabernan larunbata baino lehen, dena 20 euroren truke (kafea barne).

Toki Agenda 21

Agenda 21, 1992an Brasilen sortutako mugimendua da. Be-ronen helburua munduaren garapena eta ingurunearenganako errespetoa uztartzea da, jasangarritasun bezala ezagutua dena; guzti hau politika sozial egoki eta justuagoeekin eta azpigaratutako herrialdekiko elkartasun eta errespetu harremanak sendotuz.

Brasil-en abiapuntu izan zuen mugimendu hau munduan zehar barreiatzen joan da; argi baitago ingurumena arazo globala izanik denen partehartze eta inplikazioa behar duela ahalegina benetan eraginkorra gertatu dadin. Honen ondorioz Tokiko Agenda 21 direlakoak sortu dira, bakoitzak bere eremuan ahal dituen proiektuak aurrera eramanez. Goierrri eskualdean 18 udalerrik osatzen duten Udaltalde 21 Goierrri izeneko taldea sortu da. Arama talde honetan barneraturik dago gure txikian ere egiteko asko dugula uste baitugu. Gure eguneroko jarduerak ingurugiroarengan sortarazten dituzten ondorioei so egin eta hauek ahalik eta gehien murrizteko ekimenak jarri nahi ditugu martxan. Guzti hau aurrera eramateko talde anitza sortzea litzateke gure asmoa eta piskanaka honelako ekimenek duten garrantziaz ohartzea. Honen inguruan ematen diren aurrepauso eta ahalegin guztien gainean informaturik izango zaituztegu.

Mendi irteera

Datorren ekainaren 6an mendirteera bat izango da eta herritar guztiak bertan parte

hartzera deitzen ditugu. Antolatuko den ibilbideari buruzko xehetasunak hurrengo alean izango dituzue.



148 biztanle

2004ko urtarrilaren 1era egokituriko biztanle erroldaren arabera 148 biztanle ditu Altzagak. Azken urteetako bilakaerari jarraituz altak bajak baino gehiago izan dira aurretik.

Datu curioso bezala hurrengoak, 148 biztanle horie-

tatik 74 dira emakumezkoak eta 74 gizonezkoak.

Adinari begira 26 dira 18 urte edo gutxiago dituztenak eta, 18, berriz, 65 urte edo gehiago dituztenak.

2003 urtean 2 jaiotza izan ziren Altzagan, eta heriotzak, 1.

Altzagarateko jaia maiatzaren 23an

Altzagarateko urteroko jaia, maiatzaren 23an izango da aurretik. Egitaraua prestatzen ari dira eta hurrengo alean izango dugu egitea zehatza.

Maiatzeko meza Altzagaraten

Maiatzeko igandeetan, ohiturari jarraituz, meza elizkizuna Altzagarateko ermitan izango da, eguerdiko 12etan.

Ordiziako eta Beasaingo Antzitzar taldeak elkartu ondoren Goierri triatloi taldea sortu da

Ordizia eta Beasaingo triatloi taldeak elkartu eta Goierrikoa sortu berri dute. **GOIERRITARRAREN 258.** zenbakian berria aurreratu genuen, baita partaideen zerrenda argitaratu ere. Oraingo honetan Iker Baztarrikak zabalago azaldu dizkigu taldea sortzearen zergatia eta lanerako asmoak.

Zer dela eta sortu duzue Goierriko triatloi taldea?

Goierriin bi triatloi talde zeuden: Ordiziako taldea eta Beasaingo Antzizar. Lagun talde bat izan gara, entrenatzen eta asko ibili izan gara elkarrekin eta nahiko logikoa zen elkartzea. Gainera lasterketetara batera joanez gero, sailkapenei begira, talde indartsuagoa osatzen dugu. Indarrak elkar-

tuta Goierriko triatloia sustatzeko aukera gehiago izango dugu. Eta aldi berean gure artean giro hobea izatea lortu dugu.

Lehen Beasain eta Ordiziako taldeak izan arren Goierri guztiko triatletak zeuden bertan eta orain denok osatzen dugu Goierriko triatloi taldea.

Laguntzailerik ba al duzue?

Uniformea dagoeneko aurreratu dugu eta orain ari gara egiten. Zailagoa da uniforme horretan joango den babeslea lotzea, saiatzan ari gara baina oraingoz ez dugu batere lortu.

Zenbat zarete taldean?

Azkeneko zerrendaren arabera 21 gara. Horietatik zenbaitek noizean behin bakarrik hartzen dute parte lehiaketetan, urtean behin, bi aldiz... Jarraikotasunez lehiaketetan parte hartzen dutenak 10 edo 11 izango gara.



Nongo lasterketetan parte hartzen duzue?

Batez ere Euskal Herrikoetan parte hartzen dugu. Urtero irteera bat egiten dugu kanpora. Opor garaia aprobetxatuz proba luzeren batean parte hartzen dugu, gehienetan 'iron man' bezala ezagutzen diren talde bat Frankfurt-era joango da. Aurretik Alemaniara, Portugalara, Austriara... joan izan gara eta taldeko bat Hawaii-koan ere egona da.

Zer moduzko mailan zaudete?

Denetik, batzuk txirrindulari onak dira eta oso ondo ibiltzen dira duatloietan, beste batzuk triatloi motzetan moldatzen dira hobeto, besteak luzeetan... Ordiziako Joxi Garmendia lehen 10etan askotan sailkatu da, Etor Mendiak Zarautzen denbora onak egiten ditu. Jon Aranburu ere modalitate guztietan ondo moldatzen da. Neronek ere iaz Zarauzko triatloian 23



urtez azpiko proba irabazi nuen. Portugalgo Iron man proban Etor Mendia, Aitor Zabaleta, Aitor Escalante eta ni taldeka bigarren geratu ginen, gainera ni ez beste hirurak lehen 10en artean sailkatu ziren. Ez gaude Llanos anaiekin lehiatzeko moduan baina erdi aldean ibiltzen gara.

Zer moduzko egoeran dago triatloia Goierriin?

Jende askok ez du kirol hau ezagutzen. Baina bailara txikia izateko triatleta asko gauden, eta oso animatuta ari gara lanean. Urtero Ordiziako duatloia, (maiatzak 16) eta Arriarango urtegi inguruan jokatzeko Beasaingo triatloia, (uztailak 3), antolatzen ditugu.

Neskarik ba al dago taldean?

Momentu honetan Agurtzane ataundarra bakarrik dago. Lehen Naroa Arrieta ere taldean zegoen baina aurreko Atletiko San Sebastianera joan da.

Ordiziako duatloia, maiatzaren 16an

Goierriko triatloi taldeak antolatuta Ordiziako duatloia, maiatzaren 16an jokatu da. Aurreko egunean, maiatzak 15 larunbata, umeentzat triatloia izango da. Ordiziako igerilekuan igeri proba, ondoren inguruetan mendiko txirrinduan ibiliko dira eta bukatzeko lasterkako proba izango dute. Hau gazte- txoak kirol honetara gerturatzeko asmoarekin antolatzen dute.

Hurrengo egunean helduentzat Ordiziako duatloia txandak izango da. Proba, 14 kilometro korrika, 72 txirrinduan eta 7 korrika izango da.



izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA
Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**

Kirola bi lerrotan

Iñaki Azurmendi Urrezko Aizkoran




Arriarango aizkolariak ezin izan zuen Floren Nazabal nafarra mendean hartu, Urrezko Aizkora lehiaketan. Orain, Olasagastiren aurka lehiatu beharko du, taldeko 2. postua lortu eta finalerdietara sartzeko txartela eskuratzeko helburuarekin.



Dioni Galparsoro txirrindularia sasoi onean

Errioxako itzulia merezitako 5. postuan amaitu ostean, Gaztela Leonen ere oso itxura ona eskaini du Euskaltel Euskadi taldean dabilen ataundarra. Joan den igandean amaitu zen itzulia eta Galparsorok 5. postuan amaitu du, irabazlearengandik 1:26ra. Itzuliari hasiera eman zion lehenengo etapan, 5 txirrindularik ihes egi- tea lortu zuten eta irabazlea sprint-ean erabaki zen. Iheslari horien taldean bi goierritarrak



ziren, Aitor Perez zegamarra eta Dioni Galparsoro ataundarra. Egun horretako erakustaldia ez zen bakarra izan ordea, azpimarratzekoa da, azken aurreko etapan, El Morredero mendatean gora burutu zuen igoera aparta.

Ataundarrak denboraldi honetan 28 egun daramatza lehiaketan buru-belarri sartuta. Txapelketek ematen duten esperientziari esker, bizikleta gainean asko hobetu duela antzematen du Dionik.

Angel Vazquezek positibo eman du

Lazkaoko txirrindulari afizionatuak, positibo eman duela eta, bi urtean lehiatu gabe egon beharko du.

II. Aizkorriko Bira, maiatzaren 9an

Beasaingo Aizkorri Mendizale Elkartek antolatuta, iraupen luze-ko II. Aizkorriko Bira izango da, igandean, maiatzaren 9an. Parte hartzaileek 50 kilometro egin beharko dituzte, Beasaindik Aizkorrirako joan-etorrian. Goizeko 6etan abiatuko dira mendizaleak, Loinazko San Martin plazatik. Informazio zehatzagoa Beasaingo kronikan duzue.

III. Zegama-Aizkorri mendi maratokia, maiatzaren 23an

Hamabost egun barru, Aizkorri berriz ere protagonista izango da. Korrikalarien txanda izango da maiatzaren 23an. III. Zegama-Aizkorri mendi maratokia jokatu-ko da. Aurten gainera, Munduko Koparako baliagarria izango da. Euskal Herriko txapelketa ere orduan jokatu-ko da. 300 laguneko muga jarrita zuten antolatzaileek eta erraz gainditu dute kopuru hori. Hurrengo alean bilduko dugu informazio zehatza.

Herri arteko herri kirol txapelketa atzeratuta

Maiatzaren 1ean, Andoianen, jokatzekoa zen herri arteko herri kirol txapelketa atzeratu egin dute, maiatzaren 30era. Txapelketa honetan, hiru Goierriko talde lehiatuko dira: Idiazabal, Segura eta Ordizia.

Supermotard txapelketa


Olaberriko Kartingean, maiatzaren 8an, Nazioarteko Supermotard txapelketa jokatu-ko da, bigarren aldiz. Partehartzaileei dagokienez, punta-puntako motozaleak etorriko dira Olaberri- ra. Iaz 3.000 ikusletik gora bildu ziren Karting-e- an.

'Liluratura' saioa Lazkaon:

Xabier Mendigurenen 'Arbelaren gainean' liburuari buruzko solasaldia

Irakurtzea atsegin baduzu, irakurtzeak liluratzten bazaitu eta irakurritakoari buruz hitz egin nahi baduzu, bai beste irakurle batzuekin, bai idazlearekin berekin, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek antolatutako 'Liluratura' saioan duzu zita.

Maiatzaren 27an, Lazkaoko Gerriko Txokoan, arratsaldeko 7etan izango da lehenengo saioa. Goierriko Euskal Eskolakoek jakinarazi dutenez, 'Liluratura' saioa edoneren-
tzat zabalik dago, baldin eta liburu irakurrita joanez gero.



'Arbelaren gainean' 'Liluratura'-ren lehen saiorako aukeratutako liburu, 'Arbelaren gainean' da, Xabier Mendiguren Elizegi idazle beasaindarraren azken liburu. Itsasondan kokatua dago Mendigurenek kontatu nahi duen istorioa. Egiazko baina misterioz beteriko pertsonaiak azaltzen dira bertan.

VII. Igartza Literatura Sorkuntzako beka

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaltzeko eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, VII. Igartza Literatura Sorkuntzako beka sortu du idazle berrientzat. Bekak, 6.000 euroko dirulaguntza izango du.

35 urte baino gutxiago izate eta aurretik bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea da baldintza. Proiektuak, 2004ko uztailaren 1era arte bidal litezke Beasaingo Udaletxera: Euskara Zerbitzua Udaletxea Loinazko San Martin plaza.

Deialdi honetara, narratibako lanak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

Julen Gabiriak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatu dute epaimahaia.

Lazkao Txiki XIII. Bertsopaper lehiaketa

Argi-Berri elkarteak antolatuta eta Ordiziako Udaren babesean, Lazkao Txiki bertsopaper lehiakaren oinarriak kalean dira dagoeneko. Hamahirugarren edizioa izango da aurten goa. Lanak uztailak 1 baino lehen bidali behar dira, Ordiziako Argi-Berri elkartera (Gipuzkoa kalea, 15).

Hiru maila ezberdin bereizten dira lehiaketan.


Gaztetxo maila: 13 urte artekoentzat. Gutxienez 2 eta gehienez 4 bertso bidali behar dira, 'Nire olinpiadak' gaia hartuta. Sarietarako dagoeneko, hiru sari banatuko dira: 120 euro, 60 euro eta 30 eurokoak.

Gazteen maila: 14-18 urte artekoentzat. Gaia libre da. Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso bidali behar dira. Sariak honakoak dira: 180 euro, 120 euro eta 60 euro.

Helduen maila: 1985ean edo aurretik jaio-

takoentzat. Hauek ere gai librean jardun beharko dute. Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso bidali beharko dira. Hiru sari banatuko dira maila honetan ere: 300 euro, 240 euro eta 180 euro.

Sari banaketa irailaren 12an egingo da, Ordiziako Barrena kultur etxean, Euskal jaien barruan. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943161660 edo 649011262 telefono zenbakia daude aukeran.



kutxa

gizarte ekintza

BEASAINGO MUSIKA ESKOLA



Matrikula epea

Ikasleak direnak,
maiatzaren 3etik 14ra.
Ikasle berriak,
maiatzaren 17tik 28ra.

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera:
9etatik 1era eta 5etatik 7etara.
Ostiraletan:
9etatik 1era.

Plaza mugatuak. Izenemate ordena errespetatuko da.

IKASGAIAK:

Informatika musikala, kantua,
gazte eta helduentzako
musika lengoia, 5 eta 6
urteko haurrentzako tailerra,
instrumentu aukera zabala,
kantua, etab.

INSTRUMENTUAK:

Alboka, dultzaina, piano
akonpañamendua, gitarra
elektrikoa, teklatuak,
akordeoia, saxofoia, biolina,
tronpeta, klarinetea, trikitixa,
panderoa, pianoa, perkusioa,
txistua, gitarra eta flauta.

TALDEAK:

Abesbatza, banda, akordeoi
orkestra, harizko orkestra,
txistulari banda, perkusio
taldea, trikitilariak, folk, pop,
rock hainbat talde,
hirukoteak, etab.

**Helduentzako
irakaskuntza
berezia, adin
mugarik gabe!!!**



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa
- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa: Telekomunikazio Sistemak berezitasuna
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa: Telematika berezitasuna

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza
- Industri Ingeniaritza
- Informatikan Ingeniaritza
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza

GOIERRIko Campusa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa

LEA-ARTIBAiko Campusa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa
- Zuzendaritza Idazkaritza

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura:
 - Finantza Zuzendaritza
 - Merkataritza Zuzendaritza
 - Erakundeen Kudeaketa

ELGOIBARKo Campusa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura

BIDASOko Campusa

Lehen zikloa

- Enpresa Zientzietan Diplomatura:
 - Enpresa Logistika eta Garraioa
 - Nazioarteko Merkataritza

Bigarren zikloa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura (2006-07tik aurrera)

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza berezitasuna
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia berezitasuna
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa berezitasuna
- Irakaslea, Haur Hezkuntza berezitasuna
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira berezitasuna
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza berezitasuna

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura (Eskoriatzan eta Bilbon)
 - Hizkuntzen Psikopedagogia
 - Eskuhartze Psikopedagogikoa

Ziklo luzea

- Humanitateak Lizentziatura:
 - Informazio eta Komunikaziorako Giza Zientziak (Ikus-entzunezko Komunikazioa -2. ziklora sarrea-)
 - Enpresarako Giza Zientziak

Inskripzio epea zabalik
ekainaren 18rarte

SilikonaY musika taldearen lehen maketa

SilikonaY dute izena, 'silikona', 'euskal Y' eta 'isilik eonai', arteko hitz jokoa. Setik 4 goierritarrak dira, nahiz eta bat Bilbon eta bestea Gasteizen bizi diren. Abenduan elkartu ziren eta dagoeneko kalean dute 'Accion reaccion' izeneko maketa.

Talde berria da eta hau dute lehen maketa. Lehendik beste taldeetan ibilitakoak dira partaideak. Dani Lerma bajujolea ormaiztegiarra da eta aurretik Brigantia taldean aritutakoa da. Txema Zanka eta Jokin Sanz beasaindarrak gitarra jotzen dute eta aurretik Kaos Etiliko taldean aritu ziren. Igor Araujo abeslari ordiziarra Araujo y los Mecanicosen aritu zen. Jorge 'Gorritz' baterijole gasteiztarra Morge taldean aritutakoa da.

Iazko abenduan hasi ziren talde bezala lanean. Txema eta Igor Beasaingo kiroldegian elkartu ziren, hitz egiten hasi eta elkarrekin entsaiatzeko geratu ziren. Hor hasi ziren Araujo, Jokin eta Txema entsaiatzen. Ondoren, Dani baxua eta Jorge bateriajolea fitxatu zituzten.

Zurbanon, Gasteiz inguru-ko herri batean dute entseiatzeko tokia. Araujo Bilbon bizi da, beste bi Gasteizen, besteak Beasain eta Ormaiztegin. "Elkartu ahal izateko



Silikonay taldekoak.

leku egokia da Gasteiz. Lane-ko erreleboekin eta distantziarekin ez da erraza elkartzea eta entseietarako egutegia egiten dugu", diote.

Beraien musika estiloa definitzeko garaian, heavy rock eta punk artean dagoela esaten dute. "Musika punkia punteo heavy-ekin bezala definitzen dugu".

Musika eta letra

Beraienak dira bai musika, baita letrak ere, denen artean moldatzen dituzte abestiak. "Norbaitek ideia bat azaltzen du eta denon artean lantzen dugu. Letrak, maketaren izenburuak azaltzen duen bezala, 'Accion reaccion', gizartearen dauden arazoaren inguruan jendearen kontzientzia piztu arazteko dira. Lehen gertatu diren gauzak, orain gertatzen ari direnak eta bihar gertatuko direnen aurrean begiak zabaltzeko nahi ditugu. Gizartearen kri-


tika egiten dugu, errealitateaz hitz eginez", azaldu digute.

Azala bera Gasteizen 1976ko martxoaren 3koa da eta gai horren ingurukoa da maketako lehen abestia. "Egun haietan jendea kontzientziatuta zegoen eta protestatzeko denak elkartzen ziren. Gaur egun jendea akomodatuagoa dagoenez, gure letren bidez hortaz jabetzea nahi dugu".

Euskaraz eta gaztelaniaz abesten dute, erdi eta erdi. "Bizkaian eta Gasteizen euskara gutxiago egiten da eta bietan egiteko beharra ikusten dugu. Kanpora zabaltzeko ere bai", esan dute.

Maketa kalean

Maketa Idiazabelen grabatu zuten otsailaren 7 eta 8an Arkaitz Carrasco beasaindarrak duen Sound Source izeneko estudioan. Beasaingo Koiote zaharrean eta Murgilen eta



Maketa: Accion reaccion
4 kanta: '3 de marzo', 'Tus muertos', 'Maitasun indarra' eta 'Yo solo kiero'
Harremanetarako: 669152278 (Araujo)

Hurrengo kontzertuak: maiatzak 21, Beasainen, txosnetan; ekainaren 4an eta 5ean, Legazpiko eta Ordiziao gaztetxeetan.

Ordizian Illunpe eta Sugarraren jarri dituzte salgai. "Ale gehiago ateratzen dugunean joango gara beste leku batzuetara zabaltzen. Geu ari gara CDak grabatu, fotokopiak atera, kaxatan sartu, banatu... dena egiten eta denbora behar dugu".

Momentu honetan batez ere ezagutarazteko komunikabide ezberdinetan maketa promozionatzen ari dira. Zuzeneko emanaldiak ere lotu nahi dituzte. "Abenduan elkartu ginen, otsailean maketa grabatu eta gehiago egiteko ez dugu denborarik izan", diote. "Orain ezagutarazi eta 9 abesti prest ditugunez diskoa kaleratu nahi dugu. Horretarako ari gara diskoetxeekin harremanetan".



Biok ZERBITZUAK, S/L

Enpresetako aholkularitza orokorra

Errenta
aitorpenak
egiten ditugu

Astelehenetik ostiralera
8:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00

☎ 943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA www.biokzerbitzuak.com



aulia
TOLARE
SAGARDOTECIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

ZINEA

GOIENIZ:

Maiatzak 13: Begirada zikloa: 'El gran dictador' (Charles Chaplin), Usurbe Antzokian, 21:00etan.

LEGORRETA:

Maiatzak 13: 'Terminal' laburmetraia 'El camino a casa' filma, Herri antzokian, 20:30ean.

BEASAIN:

'La Pasion'.
Ostirala 7: 22:15.
Larunbata 8: 19:30 - 22:15.
Igandea 9: 19:30 - 22:15.
Astelehena 10: 19:30 - 22:15.

musika

BEASAIN:

Maiatzak 7, Musika kalean: Musika Eskolako ikasleen musika emanaldia, Beasain-go kaleetan zehar, 18:30ean.

Maiatzak 15, Musika kalean: Musika Eskolako irakasleen musika emanaldia, Loizozko San Martin plazan, 18:30ean.

IDIAZABAL:

Maiatzak 14, Bartolo eta Kitto!-ren kontertua, 23:00etan, Gaztetxean.

LAZKAO:

Maiatzak 8, Tapia eta Leturia, 23:00etan, Lazkaomendin.

Maiatzak 9, Epelde eta Larrañaga trikitilariak, Lazkaomendin, 19:00etan.

LEGORRETA:

Maiatzak 19, Iraunkorrek txarangarekin dantza saioa, goizaldera arte.

Maiatzak 20, Legorretako Musika Eskolako haurren kontzertua, Herri Zineman, 12:00etan.

Maiatzak 20, 'Mariatxi Guadalapano', 23:00etan.

bestelakoak

BEASAIN:

Maiatzak 7, ipuin kontaketa Joseba Ramirezekin, 17:00etan, Txelotxe ludotekan.

LEGORRETA:

Maiatzak 9, Txan magoa, Herri Zineman, 16:45ean.

bertsoak

EZKIO-ITSASO:

Maiatzak 8, 'Bigantxaren ordaina' bertso-antzerkia, Urretxu-Zumarragako bertso-eskolako haurren eskutik. Ezkioko plazan, 17:00etan.

LAZKAO:

Maiatzak 9, Mikel Mendiababal eta Xabier Zeberio bertsolariak, Lazkaomendin, 13:00etan. Arratsaldeko 6,30etan bigarren saioa egingo dute.

ikusentzuneak

LAZKAO:

Maiatzak 12, Txentxu Rojo gasteiztarraren diapositiba emanaldia, '6 urtez Euskal Herriatik kanpora bizikleta gainea', Maizpideko zinema aretoan, 21:00etan.



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zerb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.



Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**

dantza

BEASAIN:

Maiatzak 16, Beasaindar dantzarien alardea.

LEGORRETA:

Maiatzak 9, Dantzari Txiki eguna: 12:00etatik aurrera dantza emanaldia. 13:00etan, plazan.

Maiatzak 20, euskal erro-meria, 18:00etan.

Maiatzak 20, Irrintzi Alai dantza taldea, 19:00etan.

hitzaletak

IDIAZABAL:

Maiatzak 7, Abiadura Handiko Trenari buruzko hitzaletak, 18:30ean, Gaztetxean.

antzerkia

LAZKAO:

Maiatzak 8, Haur antzerkia, Lazkaomendin, 16:30ean: Kixka taldea.

erakusketak

BEASAIN:

Maiatzaren 7tik 16ra, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Maiatzaren 21etik ekainaren 18ra, Iñaki Olazabalen eskultura erakusketa, Barrenan.

mendi irteerak

BEASAIN:

Maiatzak 8: erretiratu eta adineko pertsonentzako mendi irteera: Beasain-Lazkao-Ataun San Martin-Lazkaomendi, Oiangu-Beasain. Irteera, 8etan, geltokitik.

Maiatzak 9: Aizkorri Mendizale Elkarte: II. Aizkorriko Bira.

Maiatzak 15: erretiratu eta adineko pertsonentzako mendi irteera: Gaintza-Arama-Ordizia-Beasain. Irteera, 8etan, geltokitik.

ORDIZIA:

Maiatzak 8, Ordiziako Mendizaleak: Ordizia-Itziar-Deba.

Maiatzak 9, Ordiziako Mendizaleak: Txindoki.

Maiatzak 16, Ordiziako Mendizaleak: Tolosako 14 orduak.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Maiatzak 8-9: Atorrasagasti.

(Gipuzkoa kalea - Ordizia). 943 882938.

Maiatzak 15-16: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Ikaskide Eman buelta kurtsoari!
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

- ✓ Azken azterketak maila guztiak
- ✓ Errekuperazioak ekaina - uztaila - iraila

Goierriko akademia integral irakaskuntzako profesionalen esku

Ikastetnik pedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa arazoak

- Testuak, Frogak
- Tailerrak

AMEBI

Sagardotegia

Maiatzaren 7 gaudetik 9ra arte itxita
10etik aurrera erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menua
- * Plater konbinatuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak...

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

LEIAR KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Lazkaon. Pisu altua, bista ederrekin. 80 m². 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta despentsa. Dena berri-tua. 183.000 euro. 943888564.

➡ Ordiziako Altamira auzoan 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela, trastalekua eta komuna. Erdi berri-tua. Prezio onean. 943000190. 22:00etatik aurrera deitu.

➡ Etxebizitza salgai Legorretan. 3 logela, sukalde ederra eta egongela balkoiarekin. 665706452.

➡ Peñiscolan eta Vinarozen, apartamentuak salgai, hondartzak eta golf zelaiaren ondo-on-doan. 618255000.

➡ Andoainen apartamentua salgai. Gazteen-tzako egokia. Sukaldea, bainua, leihoak eta ataria berriak. 665706452.

➡ Beasaingo Porteria inguruan, 87 m²ko etxebizitza salgai. Trastalekuarekin. 943028517 (Ana-Xabi). 21:00etatik 22:00etara deitu.

➡ Igeldon, etxe bifamiliarra salgai. 300 m²koa. 2000 m²ko lursaila, 150 m²ko garaje itxia. Igerilekua. Duela 3 urte eraikia. Itsasora begira. 680672628.

errentan eman

➡ Abuztuan, Zarautzen, etxebizitza alokatzen da. 3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Hondartzatik gertu. 665719541.

➡ Apartamentua alokatzen da Conil-Cadizeko hondartzaren ondoran. Ekipatua. Asteka edo hamabosteka. 680442668.

➡ Apartamentua alokatzen da Salouko hondartzaren lehen lerroan. Novelty eraikina. Ekipatua. Aire egokitua. Igerilekua. Garajea. 943814238 - 629989899.

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urederraren ondoran, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

elkarbanatzeko

➡ Durangon, alokatu-tako pisua osatzeko pertsona bat behar da. 653748914.

Pabilioiak

salgai

➡ Sagardotegia jartzeko Legorretan pabilioi ederra salgai, terreno eta guzti. 635705150.

Lursailak

salgai

➡ Lurzoru urbanizatua salgai Lazkaon. Inmobiliariak izan ezik. 21:00etatik aurrera deitu. 658704793.

erosi

➡ Goierrin 4.000-5.000 metroko lursaila erosiko nuke. 616698236.

Garajeak

errentan eman

➡ Beasaingo erdigunean, garajea alokatzen da. 636218240.

➡ Seguran garajea alokatzen da. 616806384.

salgai

➡ Idiazabalen garajea salgai, Kale Nagusian. 665746707.

Negozioak

eskualdatzea

➡ Ordiziako erdigunean, taberna eskualdatzen edo traspasatzen da, jubilazioagatik. 943882883.

Lokalak

errentan eman

➡ Beasainen 133 m²-ko lokal komertziala alokatzen da. Erdigunean. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Animaliak

salgai

➡ Katakume pertsia-rrak salgai. Kolore ezberdinetakoak. 680442668.

➡ Westy arrazako txakurkumeak salgai. Apirilaren 19an jaioak. 630614924.

➡ Larre behiak salgai. 652741068.

LAZKAO

Etxebizitza **unifamiliarra** eraikitzaera goaz **lorategiarekin**

943 161 032
652 775 741


SILVIAMIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

943 65 21 76 ABALTZISKETA



Ibilgailuak

salgai

➡ Heriotzagatik Dae-woo Nubira autoa salgai. Berri berria, 3.500 km. 657707564.

➡ Garraio tarjeta nazionala eta 3.500 kg baino gutxiagoko kargarekin kamioneta salgai. Bolketea ere ba du. 657792141 / 651701690.

➡ 2000ko Volkswagen Bora TDI-a salgai, 115 zaldi, hi line. Llantak: 1000 miglia eta extra ugariarekin. Berria bezala. 609411811.

➡ Opel Astra G, 1.8-16v salgai. Extrak. 1999. urtekoa. 5.900 euro. Negoziagarriak. 607658847. Jose Luis.

➡ Seat Alhambra 1.9 Tdi 110 cv salgai. 1999 urtekoa. Gris metalizatua. 7 eserleku. Kristal ilunak. 615700511.

➡ Volkswagen Transporter 1.9 salgai. Gasolina. Lo egiteko ekipatua. 9438811053 - 696578871.

➡ 45 cc-ko motorra salgai. Egoera onean. Bi kasko eta kaskadua ere bai. 200 euro. 687688002. Oscar.

➡ Volkswagen Golf GTi salgai. 16 balbula. Egoera onean. 615768977.

➡ 20 zaldiko BJR traktore artikulatua salgai. Trakzioa 4 gurpiletan. 2.400 euro.

➡ 19:00etatik aurrera deitu. 943889647. Pablo.

➡ Suzuki mendiko motorra salgai. 49 zaldi. 658711718.

Bestelakoak

salgai

➡ Ordenagailuaren-tzako mahaia salgai. 30 euro. 943085206.

➡ Virutex A-92 zepil-loa salgai. 1100 batio. 943085206.

➡ Jangelako mahaia salgai. 2,46 x 0,92. 619751844. 18:00etatik aurrera deitu.

➡ Weftafalia markako erremolke itxia salgai. 3,60 luze, 1,50 zabal eta 2 metro altueran. Egoera oso onean. Bi urte. 1.600 kilo artekoa. Ekainera arte aseguru ordainduta. Motoentzat egokia. 665701775. Xabi.

➡ Autoarentzako elur-retrako kateak salgai. Spiker-Spider markakoak. 943085206.

➡ Mendiko eskiak salgai. Blizzard 1'80; fijazioak: Silvretta 404; botak Dynafit Lou Tech 4, 40 zenbakia. Dena 120 euro. 657775363. Gaez deitu.

➡ Motozikleta salgai, prezio onean. 150 euro. 687374559.

➡ Bigarren eskuko margotzeko kabina saltzen da Lazkaon. 10 x 4 x 2,75 m. 609735621.

➡ Trikitxa berria salgai. 943084505.

➡ Pianoa salgai. Ia berria. 943884557.

➡ Marrazketarako mahaia salgai, teknigrafoarekin. 943884557.

➡ Telefono mugikorra salgai. Nokia 83-10 markakoa. Esku libreak sistema. Garantiarekin. Berria. 619311255.

➡ Renault Scenic-entzako barrak salgai. Originalak. Berri-berriak. Erdi prezioan. 666956883.

➡ Seat Leon FI-en 17" llantak salgai, kubieta eta guzti. Prezio interesgarria. 687638507.

➡ Mahaiari eransten zaion haurrentzako aulki eta egurrezko seha-ska salgai. 670422051.

Lana

eskaerak

➡ Ile apaindegirako ile apaintzaile bat behar da, arratsaldeetarako. Euskalduna. Ibilgailuarekin. Iluntzetan deitu. 639962850.

➡ Lazkaon, tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. 943886852.

➡ Jatetxe baterako zerbitzaria behar da. 610012737. Jesus Mari.

➡ Sukaldari laguntzaile behar da Zegamako Ostatuan. 943801051 - 686125325.

➡ Neska bat behar da asteburuetan Ordiziako taberna batean lan egiteko. 605772623.

opari

➡ Baserrian, lurra lantzeko tresnak behar ditugu. 696218195.

erosi

➡ Pianoa ikasteko teklatura erosiko nuke. 943882488.

➡ Bigarren eskuko piano elektrikoa erosiko genuke. 696218195.

eskaintzak

➡ 26 urteko neska prest dago, orduko, gar-biketa lanean aritzeko. 687374559.

➡ Ingelerako klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak edo bakarka. Merke. 665709146.

➡ Emakume bat prest dago adinekoak zaindu, etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko. 943883182 - 628431006. Mariaje.

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129


Tel.: 943 086 420

Oriamendi 15, behe

BEASAIN

J.M. Iturriotz, z/g

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak




ATAUN

Etxebizitza **bifamiliarra** eraikitza goaz
450 m²-ko **lorategiarekin**



943 161 032
652 775 741



Olaberriko dantzariak lurre auzoan

1962ko maiatzean Olaberriko lurre auzoko jaietan ateratako argazkia da. Auzoa 1960an inauguratu zuten eta bertan kultur eta gizarte ekimenak bultzatzeko lokala jarri zuten. Lokal horretan ikasi zuen dantzan gazta talde honek. Idiazabalgo Joxe Mari Iparragirre eta Errekaldeko Joxe izan zituzten irakasle. Dantzariak Olaberriako eta lurreko biztanleak ziren.

Eskubiko ilaran (atzetik aurrera): Jose Ignacio Zumeta, Jose Ignacio Aranburu (Etxetxo), Santi Munduate eta Jose Antonio Goiburu.

Ezkerreko ilaran (aurretik atzera): Jesus Serrano, Jose M^a Urbieta, Jose Zudaire eta Angel Andueza.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA




x LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

x ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA



Goi Mailako Tolosaldea L.H. Institutua

ESKAINITZA AKADEMIKOA

ARAUTUA

Goi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazio bidezko produkzioa.
- Eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea.
- Metal-eraikuntza.
- Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak.
- Administrazio eta finantzak.
- Informatika-sistemen administrazioa.

Erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazioa.
- Soldadura eta galdaragintza.
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.

EZ ARAUTUA

- Langileen etengabeko formakuntza. Kualifikazio profesional sistemako ikastaroak. Doan. Mekanika, soldadura, elektrizitatea, informatika, administrazioa.
- Langabetuen formakuntza.

Telefonoak: 943 651 147 (Josune)
943 650 664

E-mail: idezkaritza@tolosaldea.com
Webgunea: www.tolosaldea.com

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 9ra

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 1etik 7ra

INSTITUTU HONEN BIDEZ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE


- laz Ikasketa Teknikoak amaitu zituzten ikasleetatik %100 jadanik lanean ari dira.
- Lankidetzak hitzarmenak 150 enpresekin.
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromezu hartzen dugu.

**Ikastetxe honetan kalitatea ez da moda bat,
gauzak hobeki egiteko era baizik**


8 urte ISO 9002 kalitate sistemarekin eta
3 urte zilarrezko Oreakin irakaskuntza hobetzen



BEASAINGO
ETXE-UBIN
GAUZA ASKO
ALDATU DIRA



MAIATZATIK AURRERA ETXE-UBIN
NAFARROAKO ETORBIDEA, 1 - BEASAIN - 943 88 68 51



ZABALTZE OFERTA

-%10

ATSEDENERAKO
SISTEMATAN

www.ametsdescanso.com

